# ttipi ttapa

399

2005eko ekainaren 2a • XXV. urtea



## Gas naturalaz Irache elkartearekin

03

Bera eta Lesakako kontsumitzaileek Gas Naturaleko mantenimendu kontratuarekin duten arazoaren berri eman digu Mikel Bezunartea, Iracheko teknikariak.



## Doneztebeko 3. pilota txapelketa

20

Maiatzaren 14an jokatu ziren Doneztebeko Erreka elkarteak hirugarren aldiz antolatutako eskuz binakako txapelketaren finalak. Hainbat pilotari aritu dira.



GB

DENBORALDIKO BALANTZEA

# Eskualdeko kirol taldeek akautu dituzte beraien ligak

ARGAZKIA: ONDIKOL


MUEBLES AMETS
larunbat arratsaldetan irekia
4000m² ERAKUSKETA moblez beteak:
• errustikoak • atsedenaldia
• modernoak • iluminazioa
• klasikoak • dekorazioa
• gazteentzako • merkealdiak
• sukaldeak • tapizak
• bainugelak
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 BERA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443
INFORMAZIO GEHIAGO:
www.mueblesamets.com
alda itzazu zure koltxoi zaharrak
-%50
arteko deskontuak
zure gorputzak eskertuko du!!
Uztaila, abuztua eta iraileko larunbat arratsaldeak itxita


KULTURKARI
PUBLIZITATEA • ZERBITZUAK
PUBLIZITATE AGENTZIA
Iragarkiak irrati, telebista eta egunkarietan.
Publizitate kanpainen antolaketa eta gestioa.
DISEINU ETA PUBLIZITATEAN, ZERBITZU INTEGRALA
Andutzeta 12
31760 ETXALAR
(0034) 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net
ALDIZKARIAK
BUZOIRATZEKOAK
FOILETOAK
LIBURUAK
TXARTELAK
LOGOTIPOAK
FAKTURAK
KARTELAK

## DATUAK...

• Mikel Bezunartea Irache Kontsumitzaile Elkarteko teknikaria da. Inguru honetan Leitza, Baztan, Bortziriak eta Bertizaranen izaten ditu kontsultak eta aurreratu digunez, «aurki Malerrekan ere izanen da aukera hori».

• Beran eta Lesakan, Gas Natural enpresari buruzko kexak jaso ditu azken aldian. Gero beteko ez zuela jakin arren, enpresak mantenu kontratua eskaini eta kobratu izan die bezeroei urtero. Dirua itzultzea nahi duenak, erreklamazioa egin beharko du.



ARTXIBOA

**Mikel BEZUNARTEA** *Irache Kontsumitzaile Elkartea*

# «Gas Naturaleko mantenimendu kuota itzultzea eska daiteke Bera eta Lesakan»

Aitor AROTZENA

**Zertan da zehazki Bera eta Lesakako bezeroek Gas Natural enpresarekin duten afera?**

Dakizuen bezala, Gas Naturalek gasa ematen du. Nafarroan delegazioa duen enpresa haundi bat da. Gasarekin batera mantenimendu-kontratu bat ere eskaintzen du. Kontratu honen bidez, hainbat zerbitzu eskaintzen dute: urtero instalazioen eta gas-aparatuen errebisioa doan egitea, baita bertze errebisioak ere. Legeak aginduta, gas-instalazioaren errebisioa lau urtetik behin egin behar dugu. Horretaz aparte, hauek urtero-urtero errebisioa eskaintzen dute. Aberiak baldin badira, enpresak bere gain hartzen du eskulana eta desplazamendua, bezeroak piezak ordaindu behar ditu bakarrik. Hori eskaintzen dute, horretarako mantenimendu-kontratua sinatu behar duzu eta egun ordaintzen den kuota urtean 73,3 euro gehi BEZ da. Lesakan eta Beran gertatzen dena, zera da: zerbitzu horiek ez dituztela ematen. Bakarren bat bulegora etorri zen hori salatuz: kontratua izan eta urte bat pasatu, bi, hiru... eta enpresak ez zuela zerbitzua ematen, alegia, ez zituela aipatutako errebisioak egiten. Enpresara jo genuen, tartean kontratu bat badelako eta kontratuan agertzen dena betearazteko. Enpresatik erantzun ziguten ez dutela egiten ahal, nonbait, errebisioak egiteko enpresa batekin akordioa sinatu zuten, baina Lesaka eta Bera atzendu zituzten. Orduan, bi herri hauetan ez dute inolako enpresarekin hitzarmen sinaturik errebisioak egiteko, eta beraz, ez da errebisiorik egiten. Alfer-alferrik ditugu sinatuak kontratu horiek.

> «Enpresak ez du planteatu automatikoki denei kuota itzultzea. Lehenbizi arazoak izan baditugu ere, erreklamazioa egin eta dirua itzultzen dute orain»

**Bezeroei zer aukera gelditzen zaie?**

Alderdi batek kontratuan agertzen dena betetzen ez duenez, kontsumitzaileak bi aukera ditu Kode Zibilean oinarrituta: kontratuan agertzen dena betearaztea edo kontratua hautsi eta kalteordaina eskatu. Kasu honetan kalteordainik ez baita, gehienez eskatzen dugu ordaindutako kuotak itzultzea.

**Enpresak iruzurra egiten duela erraten ahal da?**

Kasik estafa dagoela planteatzen ahal dugu, jakinaren gainean horrelako kontratuak egiten dituztelako. Baina gehiegizkoa da hori erratea, haiek erraten baitute akatsa izan dela, zerbitzuaren hutsa. Arazoa ikusita, orai horrelako kontratuak ez dituztela egiten erran digute enpresatik, baina badira hainbertze eginak.

**Eta horiek zer egin behar dute, ordaindutakoa berreskuratzeko?**

Ez dakigu zehazki zenbat bezerori eragiten dion arazo honek, baina maiatzean lauzpabortz lagun etorri dira bulegora arazo berarekin. Enpresak ez du planteatu automatikoki denei kuota itzultzea. Nere ustez horrela egin beharko luke, jakinda bere akatsa izan dela. Baina nonbait diru aunitz da kolpean bueltatzeko eta Bartzelonan zentrala duen enpresa handia izanik, ez omen diote horretarako baimenik eman.

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •


Berria 2005-05-14

*«Do diskoa laster izango da kalean. Gero, zuzenekoak ematen hasiko naiz. Joseba Irazoki izenarekin ere beste disko bat atera nahi nuke, baina zigiluren batekin. Kanta batzuk dagoeneko baditut. On Benito deituriko beste proiektu bat ere badugu, blues esperimentalean oinarritua».*

Joseba IRAZOKI
Berako musikaria
Berria 2005-05-14

*«Gaur egun kultur adierazle gisara ospatzen diren arma Alardeen faltsutasuna agertzen dut liburuan. Izan ere, ez dira Espainiako monarkiaren inposizioaren emaitza bertzerik (...). Zer izan den ahazten duen herriak edozein danborren doinuan kontent desfilatzen bukatzen du»*

Pedro Mari ESARTE
Elizondoko idazlea
D.Noticias 2005-05-26

## • 11 GALDERA LABUR •

**Argazki bat egiterakoan, zer bilatzen duzu?**
Errealitatea eta gertatu denari buruz ahalik eta gehien erakustea.

**Oraindik inork egin ez, eta zuk egin nahi zenukeen argazkirik?**
Puff, ez dakit... argazki guztiak ezberdinak dira eta momentu guztietan gaiak aldatzen dira.

**Zeri edo nori ez zenioke inoiz argazkirik eginen?**
Kamarak edozer aguantatzen du eta nik ere denetik ikusi dut.

**Kolorea edo txuri-beltza?**
Txuria eta beltza.

**Nork harritu zaitu argazki bat egiterakoan?**
Urtero harritzen dizu argazkiren batek. 2003an, Irakeko kontzentrazio-esparru batean, aita kaputxarekin eta haurra besoetan... Urtero badira argazki izugarriak.

**Zerk adierazten du gehiago: argazki batek edo mila hitzek?**
Argazkia ona baldin bada, mila hitzekin ez duzu hori lortzen. Argazkia txarra bada, argazkia eta 500 hitz gehiago behar dira.

**Kamara beti gainean daramazu?**
Bai, bai... kasik beti.

**Zure argazki bat aukeratzeko?**
Sinbolikoki, Itoizko kableak moztu zituztenean poztu nintzen. Nere etika profesionala galdu eta txaloka eta oihuka hasi nintzen.

**Politikari bat, kantari ezagun bat, ume bat... Erretratatzeko zer nahiago duzu?**
Ume bat, haurrekin ongi moldatzen naiz.

**Nolakoa litzateke gure mundua isladatuko lukeen argazki bat?**
Zabortegi bat lau-bost lorerekin.

**Ametsetako argazkia, non eta nori?**
Ez dut halakorik, oso sinplea naiz. Famatuak ez, herriko jendea nahiago dut, lasai badaude eta argazkiak egiten lasai uzten badizute.



**Jagoba MANTEROLA**
*Iturengo argazkilari profesionala*






















EUSKARA

# Lesakako udal lanpostuen hizkuntz mailari buruz erreakzio gehiago

## Hizkuntz Eskubideen Behatokiak helegitea jarrik dio udal akordioari

ttipi-ttapa

Lesakako Udalak, idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuei jarritako hizkuntza eskakizun mailaren inguruan hainbat iritzi eta berri sortu dira eta soka oraindik luzea izanen da seguruenik. Lesakako Euskara Batzordeak prentsaurrekoa eman zuen duela hilabete terdi. Geroztik, gaur egun Lesakako udalean idazkari den Andoni Esparzak bere iritzia plazaratu zuen, udalak egin duena ez dela hizkuntza eskakizuna jaustea, zehaztea baizik erranez. Euskalgintzaren inguruko bertze hainbat erakunderen iritzia ere plazaratu da han eta hemen.

Orain, Hizkuntza Eskubideen Behatokiak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bidez, Administrazioarekiko Auzi Helegitea jarri dio Lesakako Udaleko akordioari. Era berean, Lekunberri eta Lakuntzan ere antzekoak gertatu izana salatu du. Hiru herri hauetako udalek lanpostuetan euskara maila beharrezkoa dela onartu zuten, baina udalek berek atzera egin dutela adierazi du Behatokiko zuzendariak, Paul Bilbaok, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren atarian. Behatokiak gertatutakoa aztertu ondotik azaldu duenez, 2004an Nafarroako Parlamentuari eskatutakoa ez diola Lesakako Udalak bere buruari aplikatu. Hilabete batzuk lehenago Nafarroako Parlamentuari EGA derrigorrezko maila izatea eskatu zioten eta beraiek plantilla aldatu dute hori ez betetzeko, nabarmendu du Behatokiko Zuzendariak. Paul Bilbaoren erranetan, *«behin eta berriz salatu behar izan dugu Nafarroako Gobernuaren politika, eta oraingoan, zoritxarrez, zenbait udalen politikari kritika zorrotza luzatu behar diogu, ardura handiko lanpostuak izanik, udalaren euskarazko funtzionamendua bera baldintza dezaketelako»*.




Arteaoba

**Paul Bilbao, Behatokiko zuzendariak Lesakako udalaren erabakia salatu du.**

## SMS mezuen lehiaketa antolatu du UEMAk

ttipi-ttapa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAk, SMS edo Segapotoen Mezu Sekretuak lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan parte hartzeko aukera bada maiatzaren 13tik ekainaren 15era. Horretarako, www.smsariketa.org Internet helbidean sartu behar da edo bertzenaz, sms bat bidali 5649 zenbakira honako hau jarriz: uema sms nahi duzun mezua eta Euskadiko Kutxako Gazte-Txartela izanez gero, uema sms nahi duzun mezua gt. Honen prezioa 0,15 eurokoa da. Sariei dagokienez, Scooter Yup 50 motorra, Kodak DX7630 kamera digitala, sakeleko telefonoak, Realeko eta Athleticeko jokalarien edo Oier Zearraren kamisetak, mahai jokoak eta ordenagailurako jokoak, kamisetak, CD-ROMak, liburuxkak eta bertze hainbat izanen dira.















## BERA

# Altzateko bestak ekainaren 3tik 5era eginen dira

Ortziralean Pintxoaren Eguna da

**Amaia eta Ainhoa**

Ekainaren 3tik 5era ospatuko dira aurtengo Altzateko Bestak. Ortziralean Pintxoaren Eguna izanen da eta horregatik 18:00etatik aitzinera Altzateko ostatuetan pintxoak, inportazioko garagardoa eta ardo berezia izanen dira. Alkoholemia eta garagardo proba ezberdinak eta gasna porra ere izanen dira, guztia trikitixarekin alaitua. Errekalde ostatuan, 23.00etan Jo-Tta-Kun (txalaparta-perkusioa) taldea arituko da eta gauerdian Zizkako terrazan kontzertuak izanen dira BKBO eta talde sorpresarekin. Lixoia ostatuan DJ Txemarekin dantzatzeko aukera izanen da. Aipatu 22:00etatik 2:00tara ostatuetan edari ezberdinen bestak izanen dira. Ekainaren 4an, Altzateko Eguna ospatuko da. 12:00etan altxaferua botako da Larrakaitz txaranga, erraldoi eta buruhandiek lagunduta. 15:30etan Matzadan ginkana izanen da, eta ondotik, Suspelara igoera "konometratua". Proba hauek bukatzerakoan bonba japoniarrak bota eta ondoren merendua izanen da. Berako Plazatik Altzateko Plazara Pontevedrako dantzari eta gaiteroekin kalejira izanen da 19:00etan eta ondotik Tomiñoko (Pontevedra) Vires do Alivio taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du. Gauean Irats Taldeak plaza girotuko du. Gauerdian suzko-zezena aterako da. Azkeneko eguna, Zerbitzariena, arrantza lehiaketarekin hasiko da (zizarearekin) 9.00etan. Arratsaldean Mukixuko zubia eta Altzateko Plaza tartean dauden etxeen arteko lehiaketa izanen da etxerik tradizionalena eta hobekien kontserbatzen dena sarituz. 18.00etatik aurrera ostatuen arteko alkoholik gabeko irabiatuen txapelketa jokatuko da. Epaileak bezeroak izanen dira eta debalde probatuko dituzte edariak. 20.00etatik aintzinera poteoa izanen da eta ondotik, bestak akautzeko, Zizkako terrazan auzo-afaria. Menua paella eta oilaskoa da eta txartelak 5 eurotan eros daitezke Ikuilu ostatuan. Afaria Kottek alaitua izanen da.



### Nafarroako Matematika Olinpiadak

**Maiatzaren 21an Lodosako Institutuan ospatu zen 2006ko Matematika Olinpiadan Berako Toki Ona Institutuko ikasleak aritu ziren eta bik lortu zuten saria. Guztira 138 ikasle aurkeztu ziren, ikastetxe publiko nahiz pribatuetatakoak, eta gure eskualdetik lau ikasle lehiatu ziren olinpiada hauetan. Frogaren iraupena 2 ordukoa zen eta horretan matematikako sei buruketa egin behar zituzten bikoteka lan eginez. Bikoteak beti ere mixtoak izan behar zuten, hau da, bikotea ezin zen osatu ikastetxe bereko ikasleekin. Berako Toki Ona Institututik Asier Garcia eta Beñat Txoperenak 2. eta 3. sariak lortu zituzten, Burlatako eta Garraldako bikotekideekin.**

### Nazioarteko Bertze Musiken 6. Jaialdia

Ekainaren 10 eta 11n ospatuko da aurtengo Ertz Jaialdia Berako Kultur Etxean. Ortziralean 22:00etatik aintzinera Arnol Dreyblatt (AEB/Alemania), Jason Kahn (AEB/Suitza) eta Tusuri (Orereta) arituko dira eta larunbatan Damo Suzuki + Zu (Japon), Astra (Suitza/Grezia), Eric La Casa & Thomas Charmetant (Frantzia) eta Xabier Iriondo (Italia) aditzeko aukera izanen dugu. Diska standak ere izanen dira aurreko urteetan bezala: Amanita Records, Cut, Antifrost, Compañía de sueños ilimitada eta Tzesne bertzeak bertze da, kale animazioa egun guzian eta erakustaldiak: motzaldia, eztia, artilea... Bukaeran zozketa bat eginen da.

### I. Ekobera Azoka ekainean ospatuko da

Ekainaren 24 eta 25ean ospatuko da I. Ekobera Azoka Ekologikoa. Ortziralean "Gure elikadura"ren inguruko solasaldia izanen da Kultur Etxean eta ondoren produktu ekologikoen dastaketa. Larunbatean izanen da azokaren egun handia. Altzateko Plazan 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara produktu ekologikoen erakusketa eta salmenta izanen

### Berako Oihua

San Esteban bestak urrun ikusten ditugun arren, Bestetako Batzordea ari da antolaketa lanetan. Berako Oihua bestetako aldizkarirako beratarren laguntza beharrezkoa da eta horregatik idatziak bidaltzeko deialdia egiten du Batzordeak. Ekainaren 10a arte izanen da lanak aurkezteko epea. Posta elektronikoz kultura@berakoudala.net helbidera bidali edo bertzela Kultur Etxera zuzenean eraman, ahal bada disketean.









LESAKA

# Urrezko eta Diamantezko Eztaiak bete dituztenei omenaldia eginen zaie ortziralean

Bortz senar-emaztek 50 urte eta batek 60 bete dute ezkondurik

Aitor AROTZENA

Ortziral honetan, ekainaren 3an, eginen da Nafarroako Kutxako Urrezko Adina elkarteak antolatutako jubilatuen Eguna. Urtero bezala, aurten ere Urrezko eta Diamantezko Eztaiak ospatzen dituzten bikoteak omenduko dira. Bortz senar-emaztek egin dituzte 50 urte ezkondurik: Pedro Larralde Gaztelumendi eta Maria Jesus Zubieta Tapia; Juan Bautista Lazkano Ubiria eta Eusebia Iratzoki Telletxea; Francisco Etxepare Madariaga eta Anastasia Ariztegi Iribarren; Luis Mitxelena Abanz eta Benita Larralde Tapia eta Segundo Rodriguez Gonzalez eta Julia Marcelo Gonzalez. 60 urte ezkondurik bete duen bikotea ere omenduko da, Jose Maria Irurieta Etxeberria eta Maria Larralde Gaztelumendik osatutakoa.

Eguneko egitarauari dagokionez, 12etan herriko karriketan barna adineko txistularien ibilaldia eginen da. 12:30etan ongietorria eginen zaie gonbidatuei erretiratuen elkartean. 13:00etan Meza Nagusia izanen da eta 14:15etan frontoian anaitasun bazkaria. Bazkalondoan omenaldia eskainiko zaie aurten Urrezko eta Diamantezko Eztaiak ospatzen dituztenei eta gero bi telebista zozketatuko dira azaldutakoen artean eta dantzaldia izanen da «Nueva Europa» taldearekin.

### Antzerkia

Mairu Antzerki tailerrak, Lesakako udalaren laguntzaz, "Keinu-leihoak, antzerki eta adierazpen artistikoen eszenatokia antolatu du. Azkeneko ekitaldia larunbat honetan, ekainaren 4an eginen da. Tokia Theatre taldeak, "Kauterak" izeneko antzeslana eskainiko du Lesakako karriketan barrena, 23:00etatik aitzinera. Joan den ortziralean, «Ixuriak» musika eta antzerki emanaldia eskaini zuten Kasinoan.



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

***Gazte Eguna***

**Hainbat ekitaldi egin ziren maiatzaren 21eko Gazte Egunean. Tartean, kamiseta tailerrean aritu ziren gaztetxoak, argazkian ageri den bezala. Eskalada, bertso pilota, bazkaria, bakarsolasak 5Ziri aldizkariaren aurkezpena, kontzertua... denen gogoa asetzeko moduko ekintzak aurten ere.**




ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

***Irain Eskolak 25 urte***

**Irain eskolaren 25. urteurrena ospatzeko lehenbiziko ekitaldiak egin ziren maiatzaren 18tik 21era: solasaldia, antzerkia, kontzertua, jokuak, tailerrak, bazkaria... Aste honetan segida izanen dute ospakizunek eta 25 urte hauetako ibilbidea biltzen duten argazkien erakusketa eginen da.**












ETXALAR

# Egitarau zabala ekarriko du igande honetan XIII. Gasna Feria Egunak

## Udaberriko mus txapelketan Prudencio Etxabide eta Jabier Indaburu suertatu dira garaile



**Aurtengoan ere lana gogotik egin beharko dute gasna lehiaketako epaimahaikideek, aurkeztutako gasnen artean onena zein den erabakitzeko. herriko gasna onenari ere saria emanen zaio.**

**Joseba eta Nerea**

Urteroko egitarau zabalarekin heldu zaigu aurten ere Gasna eta Artisau Feria Eguna. Altxata Kultur Elkarteak antolaturik, goiz-goizetik hasiko da mugimendua plaza bazterrean. 10:30etatik aitzinera artisau eta eskulangileen postuak izanen dira frontoian. Bueltaxka bat eman, eskulanak ikusi, eta erosteko aukera ere izanen da. Hauetaz gain, azkeneko urteetako martxa segituz, Altxatak berak taloen postua paratuko du. Eguerdiko 12:30etan herriko trikitilariek emanaldia eskainiko dute frontoian bertan. Perkusio doinuak eta gisa guzietako abestiak ekarriko dituzte bertze urte batez Etxalarko trikitilari eta panderojole gazteek. Eguerdiko 13:30etan, leku berean, gasna lehiaketako sari-banaketa eginen da. Goiz osoan epaimahaikideak lanean aritu ondotik, orduan emanen dute aurtengo gasna irabazlearen izena. Erran behar da lehiaketara gasnak aurkeztu nahi dituztenek goizeko 11ak arte izanen dutela aukera, plazan bertan izanen den postuan. Eguerdiko 14:30etan herri-bazkaria eginen da. 120 bat lagun espero dira aurten. 18:00etan izanen du segida egitarauak, herriko dantzarien saioarekin. Andra Mari Dantza Taldeko ttikienak plazan arituko dira urteroko dantza-ikuskizunarekin. Akabatzeko, emakumeen soziedadean eskulan-erakusketa ere egonen da ikusgai egun osoan; herriko emakumeen eskutik.

### *Udaberriko II. Mus txapelketa*

Joan den maiatzaren 15ean akabatu zuten Larraburuan Udaberriko II. mus txapelketa. Urtero bezala, bikote andana aritu da txapelketan, nahiz eta bertze sariketetan baino kopuru ttikiagoa izan. Duela bi aste, maiatzaren 15ean, jokatu zuten finala eta Prudencio Etxabide eta Jabier Indaburuk osatutako bikotea izan zen irabazle. Urdaiazpiko zati bana eraman zuten sari gisa. Hurrengo zazpi bikoteak berriz, ez ziren sailkatu eta guztiek sari bera izan zuten, bina ardo botila.















## ARANTZA

# Herri Kirol jolasetan txapeldunorde eta hirugarren postuak lortu dituzte herritarrek

Larunbat honetan Muthiko Alaiak fanfarreak alaituko ditu plaza inguruak

Nerea ALTZURI

Nafarroako herri kirol jolasen edizio berri bat iragan da. Joan den maiatzaren 15ean eta Txantrean, bortzgarren eta azken jardunaldia jokatu zen Ezkaba plazan. Aitzineko aleetan aipatu bezala, herriko ordezkaritza aritu da aldi honetan ere antolaturiko txapelketetan. Proba konbinatu eta sokatiran izan dira kategoria ezberdinetan lehiaketak eta emaitzak honakoak izan dira: Alebinen taldeak ez zuen finalerako txartelik lortu; Haur mailako proba konbinatuan aranztarrak hirugarrenak geratu ziren; Kadete mailako proba konbinatuan liga sistema erabiliz sailkapen orokorrean Arantzako taldea 16 punturekin geratu zen bigarren postua erdietsiz. Sokatirako txapelketari dagokionez, kadete mailako 540 kilotan aranztarrez eta narbartearrez osaturiko taldeak hirugarren tokia lortu zuten bai azken kanporaketan nola sailkapen orokorrean. Hurrengo urteko edizioaren esperoan geratuko gara. Bidenabar zorionak partaide eta prestatzaile denei!



Argazkia: Josean OLAGARAI

**Aurtengoan ere maila polita eman dute herri kirolean herriko neska-mutiko gaztetxoek.**

### Extremaduran oporretan

Hogeitamalau lagun, tartean herritarrak, Extremaduraldean oporretan daude. Joan den astelehenean, maiatzaren 30ean eta goizeko 6etan herriko aparkalekuan hitzordua jarria zuten. Bidaia osoan beuren zerbitzura izanen duten autobusa hartu eta hango lurrak hango lurrak ezagutzen ari dira orain. Heldu den astelehenean, ekainaren 6an arratserako etxean izanen dira. Bitartean, egunez-egun egitaraua betea dute. Guadalupe, Plasencia, La Vera, Zafra, Jerez de los Caballeros,... bezalako puntuak izanen dituzte zortzi eguneko oporraldian zehar.

Lekuak, ohiturak, eraikinak, janariak eta bertzelakoan ezagutuko dituzte. Joan den apirilean bertze talde batek Karibe aldean hamabortz egun pasatu zituen, bertzeak-bertze Mexiko eta Kuba ezagutuz.

### Udaberriko Bira

Udaberriko birak ere herrian pausaldia izanen du. Bertze urte batez, Nafarroako Kultura eta Turismo Departamentuak eta Vianako Printzea Erakundeak antolaturiko antzerki, musika, zinema eta folklore emanaldiekin osaturiko egitaraua apirilean abiatu zen. 200 eta 1.000 biztanleren artean dituzten Herriko Etxe eta kontzejuen laguntzarekin bideratzen den programa da. Heldu den larunbatean, ekainaren 4an 20:30etan herriko plazan Muthiko Alaiak fanfarreak emanaldia eskainiko du.

### Ternida Eguna

Joan den maiatzaren 22an, Ternida egunean, Ekaitza elkarteak bazkaria antolatu zuen. Ternidako itzulia egin eta Senberkobordan bazkaria egitekoa baldin bazen ere, eguraldia lagun ez zenez, elkartean bertan bazkaldu zuten hogehien bat lagunek.

Jose I. Gonzalez Enguita
Pintura lanak orokorrean

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
Langile autonomoak
Nekazariak eta mendi langileak
Nominak eta Aseguru Sozialak
Lan-Kontratuetarako laguntzak
Enpresa berri ezberdinen sortzea
Diru-laguntza ezberdinak
Kontabilitateak
IVA eta IRPF
Errenta aitorpenak
Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
Bidegabetasun planak eta aurrekontuak
LESAKA: Bittiria, 71-behea
Tel: 948 637 050
Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Villa, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

ERREKALDE

# XIII. GASNA eta ARTISAUen FERIA



**ekainaren 5ean**
**ETXALARen**

**10:30** Artisauen erakusketa
**12:30** Herriko trikitilariak
**13:30** Gasna lehiaketako sari banaketa
**14:00** Herri bazkaria
**18:00** Herriko dantzarien saioa

Egun osoan herriko emakumeen eskulanen erakusketa Andre Mari Elkartean.



Antolatzailea:

ALTXATA kultur elkartea

Laguntzaileak:

Etxalarko Udala

HERRIKO OSTATU - JATETXEA

LA BASQUE

ELUTSA TABAKOAK

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

DONEZTEBE

# «Muga guztien gainetik» kulturarteko jardunaldiak egin dira

## Joan denastean «Racismomaton» tresna jarri zuten eliz atarian

ttipi-ttapa

Gazte Burrunba Kultur Elkarteak eta Bidelagun erakundeak, Doneztebeko udalaren laguntzaz "Muga guztien gainetik" izeneko Kulturarteko jardunaldiak antolatu zituzten joan den astean, maiatzaren 23tik 29ra. Antolatzaileen erranetan, *«bistan dago gure gizartearen aurpegia ibuiraz aldatzen ari dela eta kolore berriak, usai berriak eta ohitura berriak osatzen dutela egungo Malerreka. Gizartearen aniztasun horrek erronka berriak exijitzen dizkigu elkarrekiko errespetuan oinarriturik elkarbizitza ahalbideratzeko»*. Horretatako, kultur ezberdinarako pertsonak ezagutzea eta beraienganа hurbiltzea nahitaezkoa da, *«bere garaian, Amerikétan nahiz Europan euskaldunokin egin zuten bezala»*.



ARGAZKIA: AITZIBER LARRABURU

**«Muga guztien gainetik» kulturarteko jardunaldien aurkezpenean izan ziren Mikel Gereka, Isidro Herguedas, Idoia Sanz eta Ainara Erasun izan ziren.**

Egitarauari dagokionez, astelehenetik larunbatera, eliz-atarian Racismomaton tresna berezia jarri zen. Bertara sartzen zen jendeak galdetegi bati erantzuten zion, bere arrazakeria maila jakiteko.

Astelehenetik ortzegunera "Begiradak" argazki-erakusketa izan zen eta ortziral arratsaldean "Malerrekako ahotsak" izeneko hitzaldia zineman eta "Ibiltari baten testigantza" diapositiba-emanaldia zineman. Dena den, jardunaldi nagusia larunbatean egin zen: Tailerrak, "Munduko zaporeak" janari-dastaketa eta musika ezberdinak izan ziren ikusgai, dastagai eta entzungai.

Igandean, azkenik, Munduko selekzioaren futbito partidua jokatu zen kiroldegian. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, integrazioa bi norabideko prozesua da, denok integratzen baikara gizarte berrian, eta guztion konpromisoa nahitaezkoa da.

## Agorreta Musika Eskolan izen emateko epea zabalik

ttipi-ttapa

Doneztebeko Agorreta Musika Eskolak 2005-2006 ikasturtean izen emateko epea ireki du. Ikasle zaharrek joan den astean egin behar zuten. Baja emateko bertze epe berezia ere izanen da irailaren 15 eta 16an, baina bi epe horietan baja egiten ez bada, ikasturte guztia ordaindu beharko da. Ikasle berriek, ekainaren 1etik 17ra eman beharko dute izena Musika Eskolan 16:00etatik 18:30etara. Horretarako matrikula orria beteta, aurrezki libretaren lehenengo orriaren fotokopia helbideratzeko eta matrikularen ordainagiria eraman beharko dira. Ikasle berriek ere izanen dute matrikulatzeko epe berezia, irailaren 19, 20 eta 21ean. Ordaintzeko bi modu izanen dira: dena batera matrikula egitean edo zatika, 9 hilabetez kuota ordainduz.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK



· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate amuntak eta sukalde mobleendakoak
· Pintura eta bernizak
· Bainurako mobleak eta osagarriak
· KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 450 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetes • Asma • Zizareak • Larru azaleko alergia
Buruko mina • Ozen izerdia • Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alferrua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-katarotak

GIHARRE ARAZOAK
• Bizkarreza
• Artritis, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

✆ 943 62 30 55   San Marcial, 7-4 IRUN

ITUREN

# Ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du Ibintza kultur taldeak

## Lanak ekainaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira

Arkaitz MINDEGIA

Aurtengoan ere ipuin eta marrazki lehiaketa antolatu du Ibintza Kultur Taldeak. Urtero bezala Iturengo eskolan ikasten duten haurrek parte hartuko dute.

3-5 urte artekoek, berrikuntza gisara "Colage" bat egin beharko dute. Lehen eta bigarren mailakoek marrazkia egin beharko dute.

Hirugarren eta laugarren mailakoek ipuin bat asmatu beharko dute, eta bosgarren eta seigarren mailakoek "Saharatar bat dator gure etxera" gaiari buruz ipuina osatu beharko dute.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 10ean akituko da eta epaimahaian Ibintza Kultur taldeko kideak izanen dira. Ekainaren 18an, 17:30etan eginen da sari banaketa Herriko Etxeko ganbaran. Ondotik merendua izanen da.



Argazkia: Jon ALTZUGUREN

*Xorroxin Irrati ibiltaria*

**Irrati ibiltariak, urtero bezala, bisita egin zuen Iturengo eskolara. Pasa den astelehenetik ortziralera ipuin, elkarrizketa, asmakizun eta kontu bitxiak aireratu zituzten FM 102.60 frekuentzian herritar guztiei.**

### *Ikasturte bukaerako irteerak*

Bertizko Natur Parkeak Ingurumenaren Nazioarteko eguna modu berezian ospatuko du aurten ere. Ekainaren 3an, ortzirala, inguruko ikasleei zuzendutako egitaraua izanen da, eta aurten, Iturengo ikasle guztiak Bertizen egonen dira. Goizean taldetan banatu eta ikasleek ingurumen-tailerrez eta antzerkiaz gozatzeko aukera izanen dute. Ekainaren 17an, ortzirala, Ikasleen Herri Kirolak eginen dira Sunbillako frontoian. Lau eskoletako ikasleeak elkartuko dira egun horretan, Narbarte, Legasa, Sunbilla eta Iturengoak. Eta azkenik ekainaren 21ean 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleek Zaragozara txangoa izanen dute. Egun osoa jolas parke batean pasatuko dute eta igerileku, puzgarri eta gauza bitxiak ikusteko aukera izanen dute.

### *Trinitate Eguna*

Maiatzaren 22an izan zen Trinitate Eguna eta urtero bezala jendetsua izan zen nahiz eta eguraldiak ez lagundu. Mendaurtik buelta egin ondotik jende aunitz bildu zen Mendaur magalean bazkaltzera. Ondotik dantzaldia izan zen Mikel Salaberri akordeoilariarekin enbaltsetan eta herrian arratsaldetik eguna akitu arte Agerralde akordeolaria izan zen.

















LEITZA

# Herritarrek ezezko garbia eman diote herrian harrobirik egiteari

## Boza eman zuten 1.452 herritarretatik 1.211k kontra eman zuen

**ttipi-ttapa**

Leitzarrek ezezkoa eman zioten maiatzaren 22an etorkizunean harrobiak egiteko egon daitezkeen proiektuei. Bozkatzeko aukera zuten 2.571 herritarretatik 1.452 inguratu ziren hautesmahaietara, eta horietatik 1.211k ezezko bozka eman zuten, hau da, %83,4k. 202k aukera horren alde bozkatu zuten, 31 boz baliogabeak izan ziren eta 8k zuri bozkatu zuten.

Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak emaitzei buruzko balorazio positiboa egin zuen. «*Parte-hartze zabala egon da eta oso garbi geratu da herri honek ez duela harrobirik nahi*» adierazi zuten, eta alderdiek emaitza errespetatzea espero dutela nabarmendu zuen.

Aipatu beharra dago erreferenduma Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak egindako lanari esker egin dela. 2004ko otsailaren 12tik maiatzaren 12a bitartean kontsulta bermatzeko beharrezkoa zen sinadura bilketa egin zuten. Jasotako sinadura guztiak Udalari aurkeztu ondoren, urte bereko irailaren 10eko udal batzarrean erreferenduma aurrera eramatea onartu zuten. Hortik aurrera, Udalak bere gain hartu zituen hurrengo pausoak. Horrela, Madrilgo Gobernuko Ministro Kontseiluaren onarpena jaso zuen, 2005eko apirilaren 7an. Astebete geroago, Nafarroako presidentearen idatzizko baimena jaso zuen Udalak eta alkateak, ebazpen baten bitartez, herri galdeketa egiteko deialdi publikoa egin zuen.

Mahai gainean dagoen Albiñoko harrobiaren kontzesioa 15 urterako da, eta 72.000 m²-ko eremua hartuko luke. Proiektuak luzatzeko aukera ere aurreikusten du, Albiñoko ofita erreserbak 360.000 m²-ko zabalera hartzen baitu.



**Leitzaldeko lau herrietan 78 eragilek lortu zuten Bai Euskarari ziurtagiria 2004an, Leitzan 49k. Orain, ebaluazioa eginen du Kontseiluak, eragile bakoitzak hartutako konpromisoen betetze-maila aztertzeko edota berritzeko.**

LEITZALDEA

# Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak

**ttipi-ttapa**

Urtero bezala, 2005ean ere Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Euskara Zerbitzuak dirulaguntza emanen dio errotulua euskaraz jarri eta eskaera egiten duen herritarrari. Etxeetako eta baserrietako izena euskaraz jarriz gero, euskara zerbitzuak errotuluaren %50 ordainduko du. Gehienez ere 130 euroko laguntza emanen da. Saltokietako izena euskara hutsez jarriz gero %50 ordainduko du. Gehienez ere 210 euroko lagutza emanen da. Errotuluez gain, diruz lagunduko da, proportzio berean, autoan, furgonetan edo kamioian enpresaren izena jartzea edo idaztea. Eskaerak Euskara Zerbitzuan eginen dira (948 510814 edo leitzaldea@euskalnet.net).
Beste aldetik, UEUn izena ematen duten ikasleentzako ere dirulaguntzak emanen ditu Euskara Zerbitzuak.






# Kirol
## gehigarria

# 05



2004-05eko ligatan aritu diren taldeen
**denboraldiko balantza**



ESKUBALOIA

# Baztango Kirol Taldeak 1. Maila Nazionalari ongi eutsi dio



## Gaizki hasi baldin bazen ere, azkenean uste baino errazago lortu du mantentzea

Bere historiako erronka gogorrenari ekin dio aurten BaztangoKirol Taldeko emakumeen eskubaloi talde nagusiak. Azken bizpahiru denboralditan Nafarroako ligan nagusi izan ondotik, Lehen Maila Nazionalean jokatzeko aukera izan du aurten, estatuko bigarren kategoria handienean, alegia. Desplazamendu luzeei aurre egiteko, Kanarietara edo Kataluniara, adibidez, laguntzaileak behar zituzten eta horiek lortu zituzten: Maderas Azconak lehenik eta Magnak gero, babesa eman diote taldean. Liga ez zen ongi hasi baztandarrentzat eta bosgarren partidura arte esperatu behar izan zuten kategoria berrian lehen garaipena eskuratzeko. Kataluniako Gavà taldeari 24 eta 27 irabazi zion bere kantxa zailean. Partida horretan, baztandarren azken fitxaketa, Lucia Parini atezain argentinarra nabarmendu zen. Hortik aitzinera, pixkanaka hasi ziren garaipenak etortzen eta BKTk gibelean utzi zituen jautsiera postuak. Azkenean, erraz xamar ere lortu zuen maila mantentzea Baztango eskubaloi taldeak. Dena den, arantzatxo bat gelditu zaie BKTkoei, Beti Onak taldearen kontrako jokatutako bi derbiak galdu baitzituen, bai Elizondon baita Atarrabian ere. Beraz, emakumeetan Nafarroako hirugarren taldea da oraindik BKT, Ohorezko Mailan ari den Lizarrako Itxako eta Beti Onak taldearen ondotik. Heldu den denboraldian ikusiko da bigarrena izatera ailegatzen diren, baina horretarako lan eginen dute.

| BKT SENIORRAK 1. MAILA NAZIONALA | |
|---|---|
| Edurne SUBIZA | IRUÑA |
| Enea ARRETXEA | ELIZONDO |
| Lucia PARINI | BUENOS AIRES (ARG) |
| Izaskun DANBORIENA | AZPILKUETA |
| Alaitz URRA | LIZARRA |
| Miren LATASA | ALKOTZ |
| Mai MORALES | IRUÑA |
| Itziar JAEN | ELIZONDO |
| Maria GAZTELUPE | ELIZONDO |
| Josune ITURZAETA | ELIZONDO |
| Karmele SANZ | LIZARRA |
| Elisa ARRETXEA | ELIZONDO |
| Amaia UNANUA | ELIZONDO |
| Andrea RODRIGUEZ | ELIZONDO |
| Itziar IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Iraiti BERRUEZO | ATARRABIA |
| Desiree VINAGRE | ELIZONDO |
| Amaia GARCIA | LIZARRA |
| Garazi ARRETXEA | GARTZAIN |
| Ane ALBERRO | ELBETE |
| Entrenatzaileak: Jose ITURZAETA eta Enrique PETRIRENA | |




ANTXITONEA
Trinketea




Braulio Iriarte, 16
ELIZONDO
948 581 807
www.antxitonea.com

| BKT KADETEAK 2. URTEKOAK | |
|---|---|
| Edurne SOBRINO LOPEZ | ELIZONDO |
| Miren SOBRINO LOPEZ | ELIZONDO |
| Oihane PRIM AGERREBERE | IRURITA |
| Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE | ELIZONDO |
| Garazi URTASUN ERASO | IRURITA |
| Maite GOIKOETXEA APEZTEGIA | IRURITA |
| Naiara OTEIZA RAZKIN | ORONOZ-MUGAIRI |
| Maite RODRIGUEZ TELLETXEA | ELIZONDO |
| Nerea GIL ZIAURRIZ | ELIZONDO |
| Ines LABORRA BARRAU | ELIZONDO |
| Leticia REKARTE MENDIBURU | ELIZONDO |
| Ilsaso ARIZMENDI APEZETXEA | ORONOZ-MUGAIRI |
| Idoia MAIA DAGERRE | ELIZONDO |
| Entrenatzaileak: Enrique PETRIRENA eta Maria GAZTELUPE | |

| BKT KADETEAK 1. URTEKOAK | |
|---|---|
| Dorleta AGIRRE SAN VICENTE | ELBETE |
| Bidane APEZETXEA BERRO | ORONOZ-MUGAIRI |
| Anabel SOBRINO ARTAZKOZ | ELIZONDO |
| Maialen ARREGI TORRES | ELIZONDO |
| Itziar GOIENETXE AGIRRE | ELIZONDO |
| Izaskun AIZPURU ETXEBERRIA | ELIZONDO |
| Angela NAGORE SANCHEZ | ELIZONDO |
| Laura JAEN | ELIZONDO |
| Nerea MORTALENA MASKOTENA | ELIZONDO |
| Amaia MORTALENA MASKOTENA | ELIZONDO |
| Entrenatzaileak: Ainara UHANDA eta Iñaki URIARTE | |

# Emakumeen eskubaloia lantzen gazteenetatik hasita

Baztan Kirol Taldeak, kadete mailako bi taldereki lantzen du emakumeen eskubaloiaren harrobia. Bi taldeek Nafarroako Kirol Jolasetan hartzen dute parte. Bigarren urtekoek liga bikaina egin dute eta aitzineko postuetan ibili dira. Lehenbiziko urteko taldean, berriz, jokalari gazteagoak ere aritu dira eta pixkanaka eskubaloian trebatzen joateko helburua bete dute.



Argazkia: Toño ITURZAETA

Baztango Kirol Taldeko bigarren urteko kadeteak.



Argazkia: Toño ITURZAETA

Baztan Kirol Taldeko lehen urteko kadeteak.



La Baztanesa, S.A.

AUTOBUS ENPRESA

Eguneroko eta turismo bidaien zerbitzua

Santiago 25, Tfnoa: 948 580 129 • ELIZONDO

ESKUBALOIA

# Errekako talde nagusiak azken partidara arte borrokatu du mailari eusteko

## Mutiko gazteek liga polita egin dute eta infantilak lehen aldiz kantxaratu dira



Argazkia: Edurne ZUBIETA

**Azkeneko urteetan bezala, Errekako talde nagusiak sufritu egin behar izan du kategoria mantentzeko. Etxeko azken hiru partidak irabazita lortu zuen helburua, aurtengoan erreboteen esperoan egon beharrik gabe.**

Joan den urtean, errebotez izan bazen ere, mailari eustea lortu ondotik, denboraldi honetan ere Doneztebeko Erreka eskubaloi talde nagusiaren lehen helburua kategoria mantentzea zen eta hau, azken ihardunaldian izan bada ere, lortu egin dute doneztebarrak. Denboraldi guztia beheitiko postuetan egon da Erreka, baina Donezteben jokatutako azken hiru partiduak irabaztea (Portland, Tudelano eta Boscos) izan da kategoria salbatzearen gakoa. Azkenean Tafalla eta Cantolagua izan dira jeitsi direnak.

Liga bukatu ondotik, Kopa jokatu zuten, baina ezin izan ziren finalerdietara ailegatu.

**JUBENILEK LIGA ARRONT POLITA EGIN DUTE ESTREINEKOAN**

Jubenilek liga arront polita egin dute, eta seigarren postuan akitzea lortu dute. Hagitz emaitza ona kontuan hartuz gehienak lehendabiziko urteko jubenilak direla. Batzuk seniorrekin debutatu dute, bai ligan baita Kopan ere eta emaitza bikaina eskaini dute. Talde honen bajarik aipagarriena Niko Mindegiarena izan da. Doneztebarrak Portland San Antoniorekin fitxatu du eta talde nagusiarekin, Fermin Tajaduraren omenez Asobal ligako izarren kontrako erakustaldi partidan jokatu zuen, gol bat eginez. Nico, Richardson,

| ERREKA SENIOR 2. MAILA NAZIONALA | |
|---|---|
| Pablo ELIZONDO | DONEZTEBE |
| Juan Mari ARTAZKOZ | DONEZTEBE |
| Eduardo ALMANDOZ | DONEZTEBE |
| Daniel URROZ | GAZTELU |
| Jesus IRIGOIEN | DONEZTEBE |
| Iban EZKURRA | DONAMARIA |
| Mikel BERTIZ | DONEZTEBE |
| Jokin APEZETXEA | DONEZTEBE |
| Karmelo REKARTE | DONEZTEBE |
| Joseba LEGARRA | DONEZTEBE |
| Xabier BAÑARES | DONEZTEBE |
| Jon MEDRANO | IRUN |
| Alfredo ELORZA | DONAMARIA |
| Javiertxo ALMANDOZ | DONEZTEBE |
| Entrenatzaileak: Karmelo REKARTE eta Xua LARRAZA | |
| Delegatuak: Iñigo JUANENEA ETXEBERRIA | |

APEZTEGIA BERRIA
BURDINDEGIA
Baratzetako behar dituzun erreminta guziak



Elizagibela, 1 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 994

| ERREKA JUBENILAK MUTIKOAK | |
|---|---|
| Peio MITXEO TELLETXEA | GAZTELU |
| Fermin DEL VILLAR PEGUERO | NARBARTE |
| Pascual BERTIZ BALEZTENA | DONEZTEBE |
| Javier DEL VILLAR PEGUERO | NARBARTE |
| Ibai MEOKI | DONEZTEBE |
| Ibai MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Sergio BLANCO PRIMO | DONEZTEBE |
| Xabier INDABERE | LEGASA |
| Eneko TELLETXEA | OITZ |
| Jon JUANIKOA | NARBARTE |
| Asier ARRETXEA | NARBARTE |
| Iñigo TELLETXEA | ELGORRIAGA |
| Entrenatzailea: Juan TELLETXEA eta Tomás MINDEGIA | |

Balic eta Asobaleko jokalari onenekin jokatzen ikustea izugarrizko bultzada izan da Errekako entrenatzaile, jokalari eta zaleentzat.

**MUTIKO INFANTILAK LEHEN ALDIZ KANTXARATU DIRA**

Infantilek ere taldea atera dute. Ez dituzte emaitza sobera onak izan, baina jokalari aunitzek jokatu dute eta hori da garrantzitsuena kategoria hauetan. Gainera, erran beharra da denak lehendabiziko urtea zutela eskubaloian jokatzen eta ikasten aritu direla.



ARTXIBOKOA

Joan den urtean kadete taldean ziren jokalari gehienak jubenil mailan aritu dira aurten. Nico Mindegia –zutik, ezkerretik bigarrena– San Antoniora joan da eta talde nagusiarekin debuta egin du adiskidantzako partida batean.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Errekako talde nagusia defentsan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekako mutiko infantilak lehen aldiz aritu dira aurten.



ERRUGBIA

# Ohorezko Mailara igotzeko fasea jokatu du Baztan Rugby Taldeak

## Ligan bigarren izan ondotik, lehen kanporaketan erori zen



Argazkiak: ONDIKOL

**Lehen Maila Nazionalean lehen aldiz aritu da Baztan Rugby Taldea eta Ohorezko mailara igotzeko promozioa jokatu du.**

Aitzineko bi urteetan partida bakar bat ere galdu gabe Nafarroako Liga irabazi ondotik, aurten estreineko aldiz Lehen Maila Nazionalean jokatu du Baztan Rugby Taldeak, ere multzoan bigarrenak izan ziren baztandarrak eta horrek Ohorezko Mailara igoera fasea jokatzeko aukera eman zien. Hamasei talde zeuden kanporaketa hauetan eta lehenbiziko biak zuzenean igoko lirateke eta eta bertze bik Ohorezko Mailatik jausten zirenekin promozionatuko lukete. Ez zuen suerte handirik izan Baztango taldeak eta lehendabiziko kanporaketan, Bartzelonako Sant Cugat taldeak kanporatu zuen. Lekarozen martxoaren 6an jokatutako joaneko partidan, ongi aritu zen BRT, baina 25-26 galdu zuen azkenean. Bartzelonan martxoaren 12an, 0-3 aitzindu ziren baztandarrak, baina kataluniarrek bueltа eman eta 38-10 irabazi zuten.

Etorkizunera begira, Baztan Rugby Taldeak bigarren taldea eta gazte mailakoa du. Iñaki Bengoetxea entrenatzaileak erran digunez, *«saiatzen gara harrobia lantzen, baina ez da erraza biztanleria mugatua delako. Futbola, pilota... kirol asko eta gazte gutti; gainera errugbia ez da astebururo ikusten telebistan»*. Taldearen ezaugarriei dagokienez, «*aurrelari indartsuak eta dinamikoak eta gibelekoak, plakatzaileak, defentsan trebeak. Aurrean jokatzen duen taldea dugu, sakontasunez eta abiaduraz. Baina beti ere joku "kreatiboa" egiten saiatzen gara*» dio entrenatzaileak.



| BAZTAN RUGBY TALDEA (2004-2005) | |
|---|---|
| Unai ARANZABALEGI BASKARAN | IRUÑA |
| Manex AIZPURU IRIBARREN | ORONOZ-MUGAIRI |
| Patxi ALMANDOZ IRIGOIEN | LEKAROZ |
| Gogor ATXALANDABASO LASA | DONEZTEBE |
| Iñigo ARREGI JAURENA | ELIZONDO |
| Josetxo BARBERENA IRAIZOZ | IRAIZOTZ |
| Iñaki BARBERENA IRAIZOZ | IRAIZOTZ |
| Mikel BARRENETXE IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Iñaki BENGOETXEA MARTINEZ | IRUÑA |
| Ruben BEUNZA ERIZE | OSTIZ |
| Patxi BIDART | BAIGORRI |
| Julio CALLEJA RODRIGUEZ | IRUÑA |
| Pedro EZKURRA OSAKAR | URRIZOLA-GALAIN |
| Iñaki EZKURRA OSAKAR | URRIZOLA-GALAIN |
| Jon FRANZESENA ZUBILLAGA | ELIZONDO |
| Jon IDOATE IRIGOIEN | LEKAROZ |
| Mikel IRAIZOZ PEREZ | ESAIN |
| Jose Miguel IRIBARREN IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Mariano IRIBARREN IRIGOIEN | ELIZONDO |
| Asier IZARRA NAVARRO | IRUÑA |
| Peio Xalbat JUANTORENA | BAIGORRI |
| Gabriel JUBERA VILLEGAS | OSTIZ |
| Oscar LAMERIÑAS KARRIKIRI | LEKAROZ |
| Arturo LANDA MANSOA | IRUÑA |
| Pablo MARITXALAR ETXENIKE | SUNBILLA |
| Angel MUNARRIZ SAGASETA | ORONOZ-MUGAIRI |
| Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA | ANOZIBAR |
| Koldo OTEIZA ZUBIETA | MUTILOA |
| Peio OBREGOZO ISTILART | IRURITA |
| Xabi OROZKO EGILUZ | IRUÑA |
| Juan Angel PEROTXENA URANGA | ELIZONDO |
| Igor RUIZ DE LARRINAGA IDOATE | ELIZONDO |
| Jon SANSIÑENA ZUBIETA | ELIZONDO |
| Miguel Mari URRUTIA ARIZTIA | ARIZKUN |
| Xabi URRUTIA BENGOETXEA | ELIZONDO |
| Oskar VILLABONA CENOZ | LATASA ODIETA |
| Jon Ander ZANGITU TORRONTEGI | IRUÑA |
| Entrenatzailea: Iñaki BENGOETXEA | |
| Delegatua: Javier INBULUZKETA | |

FUTBOLA

# Igoerarekin borobildu gabeko denboraldi ona egin du Leitzako Aurrerak

| AURRERA FUTBOL TALDEA: PREFERENTE | |
|---|---|
| Ikor BENGOETXEA PERURENA | LEITZA |
| Garikoitz ETXEGARAI MIGELTORENA | LEITZA |
| Iñigo DE CARLOS LAZKANO | LEITZA |
| Josu URKIOLA OLANO | LEITZA |
| Anttton ABROZA PEREZ | LEITZA |
| Ibai ELIZALDE ESKUDERO | LEITZA |
| Ivan URTIAGA MUNARRIZ | IRUÑEA |
| Mikel AZPIROZ HERNANDORENA | LEITZA |
| Unai SAGASTIBELTZA IREGI | LEITZA |
| Eneko BARBERIA VILLABONA | LEITZA |
| Eneko ANDUEZA ARAMENDIA | LEITZA |
| Jon ARANGOA ABADIA | LEITZA |
| Igor BENGOETXEA PERURENA | LEITZA |
| Joxean JIMENEZ KANFLANKA | LEITZA |
| Arkaitz BENGOETXEA BERASATEGI | LEITZA |
| Antxon GOMEZ SOLA | LEITZA |
| Javier URTIAGA MUNARRIZ | IRUÑEA |
| Juan Francisco URKIOLA ETXEGIA | LEITZA |
| Iñaki ZABALO BETELU | LEITZA |
| Unai OLANO | LEITZA |
| Ikor AIZAGIRRE | LEITZA |
| Iñaki ANTOLIN | LEITZA |
| Ioanes CEVALLOS | LEITZA |
| Entrenatzailea: Martin Jose SALAZAR | IRUÑA |
| 2. entrenatzailea: Josu ZESTAU | LEITZA |

Leitako Aurrera taldearen, jokalarien eta teknikarien helburu nagusia berriz ere Preferente mailara igotzea zen eta hori ez dute lortu. Horrek ez du esan nahi, ordea, denboraldi txarra egin duenik. Gol gehien sartu dituzten taldeen zerrendan bigarrena, gol gutxien sartu dioten taldea, etxean ez du partida bakar bat ere galdu eta ligan txapeldunordea izan da. (Baztan txapeldunak lortutako puntu-kopuru berbera eta "golaverage" hobea, nahiz eta azken hori ez den kontuan hartu. Ez da hala gertatu igotzeko kanporaketan). Igotzeko ligatik kanporatua izan da, etxetik kanpo egindako golek duten balio bikoitzaren ondorioz (2-0 eta 3-1).

Taldea ongi aritu da futbolean (etxean batez ere). Hasieran lan pixka bat eman zion jokoaren dinamikan eta kategorian sartzea, baina gero oso talde sendoa eta lehiakorra izan da.

Jokalari taldeak jokabide bikaina izan du. Partida batzuk ez zaizkio espero bezala atera, baina taldeak beti eman du aurpegia eta kementsu agertu da.

Martin Jose Salazar entrenatzaileak azpimarratu nahi izan du zuzendaritzak eta lehendakariak izan duten ilusioa eta eman duten babesa: *«konfiantza eman didate ilusioa sortzen duen proiektu hau aurrera eramateko. Eta aipamen berezia merezi du Josu Zestauk, haren laguntzarik gabe ezin izanen bainuen proiektu hau aurrera atera. Alderdi teknikoetan laguntzeaz gainera, taldearen funtsezko euskarria izan da. Nire esker ona adierazi nahi diot idatzi honen bitartez».* «*Zinez uste dut* –dio entrentzaileak, bukatzeko– *denboraldiaren balantzea ona izan dela, nahiz eta taldea kanporatzea desengainua izan den»*.



Aurrera taldeak denboraldi ona egin du, baina igoerako lehendabiziko kanporaketan igoeratik kanpo gelditu zen.

KATEA - BIKE

BIZIKLETEN
salmenta eta
konponketa

Kanttonberri, 1 • BERA
Tfnoa: 948 63 12 18



FUTBOLA

# Baztan talde nagusiak ez du igotzea lortu aurtengoan ere

## Lehen fasean multzoko txapeldun izan ondotik, finalaurrean kanporatu zuen Mutilverak



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

**Baztanek ezin izan du igoera lortu, multzoko txapeldun izan arren.**

Nafarroako Erregionaleko lehen mailako lehen multzoko txapeldun izan zen Baztan futbol taldea, Leitzako Aurrerarekin berdindua. Baina hori ez zen aski izan igoera eskuratzeko. Preferente mailarako igoera faseko finalerdiko kanporaketa galdu zuen Mutilveraren kontra. Suerte txarra izan zuten baztandarrek kanporaketa honetan, izan ere Mutiloan 4-1 galdu ondotik, Giltxaurdin 3-0 irabazten ari ziren. Emaitza horrekin, etxetik kanpo lortutako golen balio bikoitzari esker, kanporaketa gainditua zuten, baina azken minutuan Mutilverak gola lortu zuen, baztandarrak igoeraren ametsetik ematuz. Dena den, Baztan taldeak denboraldi polita egin du eta berriz ere Preferentera igotzea saiatzeko moduko talde gaztea eta polita osatu da.

Jubenil mailako taldeak, aitzinetik ezarritako helburuak bete ditu. Alde batetik, lehen maila mantentzea garrantzitsua da, honela talde nagusira pasatzen diren jokalariek futbol maila ona izaten dutelako. Alde horretatik, aipatu behar da hiru jubenilek denboraldi guzia jokatu dutela talde nagusian eta bertze batzuk zenbait partida jokatu dituzte.

Kadete mailako taldea multzoko txapeldun izan zen lehen fasean eta txapeldunen fasean zazpigarren postua eskuratu zen.

Infantil mailan lehen aldiz bi talde atera dira, 13 eta 14 urteko jokalariekin. Denboraldi erdian, bi taldeek bat egin dute, kirol maila eta errendimendua hobetzeko.

| BAZTAN F.T. ERREGIONALEKO 1. MAILA | |
|---|---|
| Jose Antonio AGERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Michel ARRAZTOA BRUST | IRURITA |
| Josu ARTETA MITXELENA | ELIZONDO |
| Patxi BARBERENA IBARRA | ZIGA |
| Eduardo BERTIZ GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Eduardo CALVO IRIBARREN | ELIZONDO |
| Eneko ESCUDERO AMIANO | ELIZONDO |
| Endika EGGI GOÑI | ELIZONDO |
| Iñaki GORENETXE GOÑI | ELIZONDO |
| Xabier GOÑI ELIZAGOIEN | ELIZONDO |
| Xabier IRIGOIEN ELIZETXE | ELIZONDO |
| Juan Mari LEGARREA TORRES | ELIZONDO |
| Alex MARTIN TORRES | ELIZONDO |
| Alejandro MOTA PEGUERO | NARBARTE |
| Javier OTERMIN LEIZA | DONEZTEBE |
| Jose Manuel ROMERO BARINGO | ORONOZ-MUGAIRI |
| Koldo RUIZ MINURA | ELIZONDO |
| Iñigo RUIZ DE LARRINAGA IDOATE | ELIZONDO |
| Iñaki TELLETXEA ZALDAIN | ELIZONDO |
| Peio URRUTIA BARBERENA | IRURITA |
| Eduardo URTXEGI GELBENTZU | SUNBILLA |
| Borja ARRAZTOA GOMEZ (Jubenila) | IRURITA |
| Gabriel GARMENDIA MIGELTORENA (Jubenila) | AMAIUR |
| Ivan SAN JOSE AMIANO (Jubenila) | ELIZONDO |
| Entrenatzailea: Jose Antonio AZANZA BOLADO | |

MUGAIRE iturgintza

Iturgintza, Kalefakzioa, eta gasa

Fax eta Tel: 948 59 21 83 · Mugikorra: 629 40 78 95 · ORONOZ

| BAZTAN F.T. NAFARROAKO JUBENILAK 1. MAILA | |
|---|---|
| Oier AMIANO ERASO | ELIZONDO |
| Xabier AMEZTOI ETXENIKE | ELIZONDO |
| Javier ARREGI JAURENA | ELIZONDO |
| Xabier BARBERENA URROZ | IRURITA |
| Francisco Daniel CALDAS INDART | LEGASA |
| Fermin ELIZEGI URRUTIA | ELIZONDO |
| Ander ETXENIKE MARITORENA | ELIZONDO |
| Xabier GOMEZ GARMENDIA | ELIZONDO |
| Aritz GOÑI MAIA | ORONOZ-MUGAIRI |
| Santiago IANTZI IRUNGARAI | ELIZONDO |
| Xabier IRURETA TRANCHE | ELIZONDO |
| Jorge ITURRIRIA EGURROLA | ELIZONDO |
| Borja JAIMERENA AZKARRAGA | ELIZONDO |
| Tomas LABORRA BARRAU | ELIZONDO |
| Mikel LARREGI GOÑI | ELIZONDO |
| Denis LIZASOAIN ORTEGA | ELIZONDO |
| Juan Mari MAIA ETXEBERRIA | ELIZONDO |
| Iñigo MORENO MARTINEZ | ELIZONDO |
| Iker PLAZA MARTINEZ | LEKAROZ |
| Agustin SANSIÑENA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Mikel SANTESTEBAN RIPA | ELIZONDO |
| Jokin URTIZBEREA GOÑI | LEKAROZ |
| Entrenatzaileak: Josema OSAKAR ITURRIA-Javier MAIA ETXEBERRIA | |



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

Baztango jubenilen futbol taldeak lehen mailari eutsi dio, joan den denboraldian igotzea lortu ondotik.

| BAZTAN F.T. KADETEAK 1. MAILA | |
|---|---|
| Urki ALDAKO BERTIZ | ELIZONDO |
| Zubaitz AZURMENDI GAZTELUMENDI | ELIZONDO |
| Juan DEL CASTILLO ARRETXEA | ELIZONDO |
| Simon DE LOS SANTOS MIGELTORENA | ELIZONDO |
| Ioritz ERRET LARRAZ | ELIZONDO |
| Jeanes ERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Joseba ESKALADA LERTXUNDI | ELIZONDO |
| Sergio ESCUDERO EGEA | IRURITA |
| Imanol GAMIO IRUNGARAI | IRURITA |
| Pablo GAZTELUPE GARAIKOETXEA | ELIZONDO |
| Adrian GARMENDIA MUÑOZ | ELIZONDO |
| Imanol GOÑI ELIZAGOIEN | ELIZONDO |
| Josu GOÑI ONSALO | ELIZONDO |
| Jagoba JUANIKORENA IDIART | BERROETA |
| Asier LIZARZA ESPARZA | ARIZKUN |
| Julen LIZARZA ESPARZA | ARIZKUN |
| Ioritz MITXELTORENA SANSIÑENA | ELIZONDO |
| Ander OTXANDORENA BIKONDOA | ELIZONDO |
| Gaizka OTXANDORENA BIKONDOA | ELIZONDO |
| Jose Mari SALABURU MATXIÑENA | IRURITA |
| Entrenatzaileak: Agustin MITXELENA GOÑI-David BIDART GOÑI | |



Argazkia: Foto Zaldua

Baztango kadeteen futbol taldea lehen fasean multzoko txapeldun izan zen.

| BAZTAN F.T. INFANTILAK 1. MAILA (2. URTEKOAK) | |
|---|---|
| Miguel Javier AGERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Imanol ARRETXEA GOÑI | ELIZONDO |
| Alejandro ARRONDO MUÑOZ | ELIZONDO |
| Patxi BENGOETXEA IBARRA | ELIZONDO |
| Iban ETXART IPARRAGIRRE | ELIZONDO |
| Jon FRIAS ITURRIA | ELBETE |
| Jokin GARMENDIA UGARTE | ELIZONDO |
| Tomas GARMENDIA MUÑOZ | ELIZONDO |
| Urtzi GONZALEZ IRURETA | ELIZONDO |
| Iñaki IRURETAGOIENA IRATZOKI | ELIZONDO |
| Javier ITURRIRIA BARRENETXE | AZPILKUETA |
| Luis Maria ITURRIRIA EGURROLA | ELIZONDO |
| Jorge JAUREGI SOBRINI | ELIZONDO |
| Eneko JAUNTSARAS | IRURITA |
| Agustin JUANBELTZ MALLAINI | ELIZONDO |
| Joseba MARTINEZ SAN JOSE | ELIZONDO |
| Jon MORENO MARTINEZ | ELIZONDO |
| Jon QUINTANO FERNANDEZ | ELIZONDO |
| Mikel UNANUA ARIZMENDI | GARTZAIN |
| Haritz URRUTIA | |
| Entrenatzaileak: Iban SAN JOSE AMIANO eta Juan Mari MAIA ETXEBERRIA | |

| BAZTAN F.T. INFANTILAK 1. MAILA (1. URTEKOAK) | |
|---|---|
| Iker ATXA URBELTZ | ELIZONDO |
| Xabier EGUI GOÑI | ELIZONDO |
| Daniel GARMENDIA AMIANO | ELIZONDO |
| Javier GARMENDIA BELASKOAIN | ELBETE |
| Daniel GARTXOTORENA URDANPILLETA | BERROETA |
| Antoni GOIENETXE LIZARTZA | ARIZKUN |
| Esteban GOÑI ONSALO | ELBETE |
| Unai IGARABIDE IPARRAGIRRE | ERRATZU |
| Ekaitz LAMEIRONDAS MUTUBERRIA | ELIZONDO |
| Julen LARREGI GOÑI | ELIZONDO |
| Mario OLTEGI URTEAGA | ELBETE |
| Javier RIOS MEDRANO | ELIZONDO |
| Daniel RUIZ SANTOS | ELIZONDO |
| Iñigo SANZ URIZ | ELIZONDO |
| Aimar SERRANO ARANA | ELIZONDO |
| Alvaro SOBLE GARCIA | ARIZKUN |
| Jokin URREAGA ETXENIKE | ELBETE |
| Jon VICENTE AZNAL | GARTZAIN |
| Iñaki ZUBIRI AZANZA | ARIZKUN |
| Entrenatzaileak: Joseba IGARABIDE eta Luis miguel LAMEIRONDAS GAMBRONERO | |



Argazkia: Aitor AROTZENA

Baztango infantilek bi talde atera dituzte aurten lehen aldiz, baina denboraldi erdi aldera bat egin dute.

# *Lan etorkizuna ziurtatzeko biderik seguruena*

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutua**k hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.



Elizatxo, 10 20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010 • Faxa: 943 615 380 • e-Posta: secretaria@fpbidasoa.org

## KALITATEA

BIDASOA Institutuak Kalitatean oinarritutako gestio-ereduen aldeko apustua egin du. Izan ere, **ISO 9000 ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak ematen duen **Zilarrezko Q Saria** eta orain berriki jaso den **Kalitatearen Estatuko Lehen Saria** horren lekuko dira. Beraz, EAEko eta Estatu osoko irakaskuntzarekin konparatuz, punta-puntakoa da Bidasoa Institutuaren kalitatea.

Hezkuntza Sailak Ikerketa eta Esperimentazio Zentru izendatua du, irakaslegoaren autogestioa bultzatu bidenabar, emaitza hobeak eta baliabideen probetxamendu osoagoa eskuratzen duelako.

## IKASKETA ESKAINTZA

Bidasoa Institutuak eskaintzen duen goi mailako prestakuntza teknikoari esker, ezagutza eta formakuntza ona duten teknikoak sortzen ditu, lehiakorrak eta gure inguruko enpresentzat estimu handikoak diren teknikoak.

Era berean, lanean ari diren langileentzat *Prestakuntza Iraunkorreko Ikastaroak*; lanik gabe daudenentzat *Lanerako Prestakuntza* eta *Prestakuntza Teknologia Berrietan*, guztietan homologatuak.

## TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia Berrietan buru-belarri sartua dago Bidasoa Institutua, eta baita Euskadiko berrikuntza teknologikoari buruzko proiektuetan ere: zuntz optikoaren bitartez programen transmisioa CNC makinei; irudi, hots eta datuen aldibereko transmisioa irrati, intranet eta internetez; bio-eraikuntza; eguzki-zentral fotovoltaiko eta termikoen sarearekiko konexioa; ahotsa interneteko teknologia bihurtzen; elektizitate arloen eta areto orokorren domotizazioa; errendimendu handiko ikasgela; e.a.

## NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

*Leonardo* eta *Sócrates* programen bitartez, 40 beka baino gehiago bideratu ditu Alemania, Finlandia, Frantzia, Suedia, Britainia Handia eta Grezian. Horrek agerian uzten du Bidasoa Institutuaren nazioarteko proiekzioa eta prestakuntzarik kualifikatuena bilatzeko ahalegina, bidenabar, atzerriko hizkuntzetan trebatuz tokian bertan.

## PRAKTIKAK, ORIENTABIDEA ETA LANBIDERATZEA

Lantegietan egiten diren praktiken bidez ikasleen %60a lanbideratzen da praktikak egin diren lantegian bertan eta urtebeteko epean beste %80a beste enpresetan. Autoenpleguan ere erraztasun handiak



Elektronika eta Telekomunikazioak



Proiektuen garapena

# ESKAINTZA AKADEMIKOA

**A eta D ereduetan**

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA
- Mekanizazioa

### ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA
- Neurrira egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

**SARTZEKO BEHAR DA:**
DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak froga bidez

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA
- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

### ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA
- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

### ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA
- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

**SARTZEKO BEHAR DA:**
Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak
20 urtetik gorakoak froga bidez

**PREINSKRIPZIO EPEA**
**Ekainaren 1etik 8ra**
**MATRIKULAZIO EPEA**
**Ekainaren 30etik uztailaren 6ra**

ematen ditu: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzekin, enpresa sortzeko aholkua emanez... Azken urteotan, gaur egun lanean ari diren 4 enpresa sortzen lagundu du Bidasoa Institutuak. Ikasketak amaitu dituzten ikasleentzat, Orientabide eta Lanbideratze departamentuak LANGAIrekin elkarlanean, kasik %100eko emaitzak lortu ditu. Era berean, lanbideratzeari begira etengabeko segimendua egiten du Institutuak, ikaslegoari aukera berriak bilatzen lagunduz etengabe.


Elektrizitatea


Elektronika industriala


Eraiketa eta obra zibila


Zurgintza eta altzarigintza


Mekanika

FUTBOLA

# Lesakako Beti Gazteko ekipo nagusia jautsi ez jautsi dabil

## Asteburu honetan erabakia izanen da taldearen etorkizuna



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Beti Gazteko talde nagusiak azken partidara arte esperatu behar izan du maila galtzen duen edo ez jakiteko.**

Lerro hauek idazterakoan jardunaldi bakarra gelditzen zaio jokatzeko Beti Gazteko talde nagusiari eta oraindik ez dago garbi heldu den denboraldian Gipuzkoako Preferenten segituko duen edo Erregionaleko lehen mailara jautsiko den. Berez, lau talde jausten dira eta horren arabera, azken partida hori Ordizian nahitaez irabazteaz gain, Oriokok edo Anaitasunak galdu egin beharko lukete Lesakako taldeak maila mantentzeko. Baina Hirugarren mailatik jausten diren eta Bigarren B mailara igotzen diren Gipuzkoako talde kopuruaren arabera, gerta daiteke Preferenteko hiru talde bakarrik jaustea. Hori horrela baltz, azken partida berdintzea aski izanen luke Beti Gaztek, bertze emaitzen esperoan egon beharrik gabe. Beraz, denboraldi honetako balantzea hurrengo alean osatu beharko dugu, heldu den denboraldian Erregionaleko lehen mailan Bortzirietako derbirik jokatuko den edo ez zehazteko.

Jubenilen taldeak ongi hasi zuen denboraldia Gipuzkoako lehen mailan, baina pixkanaka gainbehera egin du. Halere, maila mantendu du arazo handiegirik gabe.

Kadete mailako taldeak denboraldi hagitz ona egin du lehen mailan eta beti zazpi lehenbizikoen artean egon da.

Emakumeen taldea, Gipuzkoako ligan ez da sobera fin ibili, baina kopa polita egin du. Denboraldiko azken sei partidak segidan irabazi deta hirugarrena izan da.

Infantil mailako taldeak, azkenik, Nafarroako lehen mailako ligan eta kopan jokatu du.

| BETI GAZTE (GIPUZKOAKO PREFERENTE) | |
|---|---|
| Fernando SUSPERREGI BERGARA | LESAKA |
| Joseba TELLETXEA ZAMORA | LESAKA |
| Iñaki ZUDAIRE AJONA | LESAKA |
| Eneko FERNANDEZ MARITXALAR | LESAKA |
| Jon TELLETXEA ZOZAIA | LESAKA |
| Jabier LARRUY LARRAÑAGA | ETXALAR |
| Joseba PIKABEA BALEZTENA | LESAKA |
| Liborio ARIZTIA ZENOZ | DONEZTEBE |
| Iñigo LASAGA ARBURUA | ETXALAR |
| Imanol ALMANDOZ UBIRIA | LESAKA |
| Aritz BALEZTENA BELARRA | DONEZTEBE |
| Ikor IRATZOKI MIKELARENA | DONEZTEBE |
| Jon APEZTEGIA GONZALEZ | DONEZTEBE |
| Mikel IRIGOIEN IRIGOIEN | LESAKA |
| Beñat SARALEGI ALTZATE | LESAKA |
| Beñat MAIA ARANGUES | LESAKA |
| Asier HERNANDORENA LIZASO | LEOASA |
| Joseba JUANENA PETRIRENA | DONEZTEBE |
| Andoni BERTIZ GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Jon Andoni LARRALDE ETXARTE | LESAKA |
| Gotzon Mirena ARENAS SALAZAR | ARANTZA |
| Iñigo RODRIGUEZ LARRETXEA | LESAKA |
| Xabier TXOPERENA ERRANDONEA | LESAKA |
| Mikel IRIARTE PIKABEA | LESAKA |
| Urtzi PEREZ GURUTXET | HONDARRIBIA |
| Entrenatzailea: Jose Mari ERKIZIA OTXOTEKO | |




ETXARTE
eraikuntza
enpresa

Etxartenea, Biurrana auzoa
☎ 948 637709 - 699 385577
LESAKA

| BETI GAZTE JUBENILAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Iñaki BEGINO ERASUN | DONEZTEBE |
| Peio ETXEBESTE ZAYAS | LESAKA |
| Urtzi TELLETXEA ITURRIA | LESAKA |
| Iban SANTESTEBAN BERGARA | DONEZTEBE |
| Xabier MARITXALAR ETXABIDE | LESAKA |
| Joanes IRIGOIEN PEREZ | ETXALAR |
| Xabier GONZALEZ VAHL | LESAKA |
| Mattin GONZALEZ VAHL | LESAKA |
| Jon ALBERRO RETEGI | LESAKA |
| Xabier MARITXALAR ERRANDONEA | LESAKA |
| Beñat IRAZOKI ALTZUGUREN | ETXALAR |
| Ibai MUJIKA MAIA | BERA |
| Jon OLAIZOLA ETXEGARAI | LESAKA |
| Eneko MITXELENA ETXEBERRIA | IGANTZI |
| Xabier FAGOAGA MAIA | LESAKA |
| Iñigo ALTZUGARAI EGOZKUE | LESAKA |
| Jon OTXOTEKO ABUIN | LESAKA |
| Ladis SATRUSTEGI ALTZUGARAI | LESAKA |
| Pablo TABERNA ESTONBA | LESAKA |
| Aitor BERTIZ GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Gaizka GALLARDON ALTZUGARAI | ETXALAR |
| Ibai ORDAX OLABE | DONEZTEBE |
| Mikel TELLETXEA GONZALEZ | DONEZTEBE |
| Entrenatzaileak: Endika MENDEGIA eta Igor ROMANO | |



Argazkia: Aitor ARROTZENA
Beti Gazteko gazteen taldea ongi hasi zen, baina azkenean nahiko lan izan du kategoria mantentzen.

| BETI GAZTE KADETEAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Imanol AROZAMENA ETXEGARAI | LESAKA |
| Fred RAMOS LASAGA | LESAKA |
| Iñigo OSTIZ ESKALADA | DONEZTEBE |
| Luis PEREZ ATXAGA | ORIO |
| Aritz TELLETXEA ANTZIZAR | LESAKA |
| Jaime SEIN OSINAGA | DONEZTEBE |
| Andor ARRIOLA AGIRRETXE | LESAKA |
| Fran RAMOS LASAGA | LESAKA |
| Ibai BEREAU ZAPIRAIN | LESAKA |
| Ladis KABALLERO LANZ | LESAKA |
| Markel SUAREZ ANTXORDOKI | LESAKA |
| Andor MAIA ARAKUES | LESAKA |
| Oier IANTZI ORDOKI | LESAKA |
| Iban LOPEZ KLEMENTE | DONEZTEBE |
| Julen MAIA ANTXORENA | ETXALAR |
| Iosu LARRETXEA LARRALDE | ARANTZA |
| Mikel Aitor FLORES KONPAINS | LESAKA |
| Ion SALABERRIA TXOPERENA | LESAKA |
| Entrenatzaileak: Koldo ERKIZIA eta Koldo IANTZI | |



Argazkia: Aitor ARROTZENA
Beti Gazteko kadeteek denboraldi bikaina osatu dute, kontuan hartuz aunitz lehenbiziko urtekoak direla.



BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA - Tel.: 948 637 266- 948 631511 • 607 226 891 - Faxa: 948 637 511

# FUTBOLA

| BETI GAZTE: EMAKUMEAK (GIPUZKOAKO LIGA) | |
|---|---|
| Irati MITXELENA TOLOSA | ETXALAR |
| Izaskun ZUBIETA ALBISTUR | BERA |
| Isabel ETXEBESTE ZAYAS | LESAKA |
| Izone TELLETXEA URANGA | BERA |
| Lorea FLORES KONPAINS | LESAKA |
| Goretti ETXEGARAI LOPEZ | LESAKA |
| Garazi MITXELENA TOLOSA | ETXALAR |
| Miren ZUDAIRE AJONA | LESAKA |
| Jone ZELAIETA LAZKANO | BERA |
| Maitane ERDOZAIN IBARRA | BERA |
| Amaia ENETERREAGA ETXEGIA | LESAKA |
| Maguru INDAKOETXEA LEIZA | LESAKA |
| Maider AGINAGALDE UGALDE | HONDARRIBIA |
| Ainhoa RETEGI ERRANDONEA | BERA |
| Naiara TRIGEROS | BERA |
| Elena MUÑOA AGINAGA | IRUN |
| Irantzu ETXEBESTE IANTZI | BERA |
| Erika TXOPERENA ALDANONDO | BERA |
| Entrenatzaileak: Koldo ERKIZIA eta Xabi MARITXALAR | |



Argazkia: Aitor AROTZENA

Beti Gazteko emakumeen taldea hirugarren izan da Gipuzkoako Kopan, denboraldiko azken sei partidak segidan irabazi ondotik.

| BETI GAZTE: INFANTILAK (NAFARROAKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Mikel ARRUTI REZABAL | ORIO |
| Iker TELLETXEA ANTZIZAR | LESAKA |
| Fernando ETXEGARAI LOPEZ | LESAKA |
| Joshua GARCIA HERRANZ | ORIO |
| Martin ZULAIKA AZKUE | ORIO |
| Miguel OSTIZ GARTXITORENA | DONEZTEBE |
| Jagoba MANTEROLA IBURETA | ORIO |
| Jonetxo EZKURRA AROZENA | DONEZTEBE |
| Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA | LESAKA |
| Ander ORDOKI AYNETO | LESAKA |
| Jon ETXEBESTE ZAYAS (Alebina) | LESAKA |
| Javier ETXEBESTE ZAYAS (Alebina) | LESAKA |
| Jorge OSTIZ ESCALADA (Alebina) | LESAKA |
| Gorka ORDAX INSULUZKETA (Alebina) | ELGORRIAGA |
| Jon JUBERA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Unai GURRUTXAGA ERRANDONEA | LESAKA |
| Javier CARRION LUKANBIO | LESAKA |
| Txomin SIRERA IBARLUZEA | IGANTZI |
| Jon MIGELTORENA LEITZA | LESAKA |
| Mikel MAIA MADARIAGA (Alebina) | LESAKA |
| Javier PARDO PEREZ | URDAZUBI |
| Mikel CENOZ VERDU | URDAZUBI |
| Josu SANJURJO AITZURI (Alebina) | LESAKA |
| Entrenatzailea: Javier PEREZ MEDIAVILLA (Orio) | |



Argazkia: Aitor AROTZENA

Beti Gazteko infantilek Nafarroako infantilen lehen mailako ligan eta kopan aritu dira.

# Mastegin futbol-7 txapelketa indartsu

## Benjamin eta alebin mailako neska-mutikoak aritu dira Lesakan



Argazkia: [illegible] ZALDUA

**Doneztebe futbol taldeak alebin eta benjamin mailako taldeak zelairatu ditu lehen aldiz Mastegiko futbol-7 txapelketan (Informazioa 385. alean).**

Konpetizioko futbolean erabat murgildu gabe, benjamin mailako neska-mutikoak hamabostean behin futbolean aritu dira Lesakako Mastegiko futbol-7 txapelketan. Beti Gazteko jokalariekin batera, Baztango San Francisco Javier ikastetxea eta aurten, lehen aldiz, Doneztebe futbol taldea izan dira eskualdeko ordezkariak. Beraiekin batera, Gipuzkoa aldetik etorritako futbolariak ere aritu dira.

Guztira berrehun futbolari Mastegiko gende gozoak betetzen. Sanak izan, haurrak txikitatik futbolean trebatzeko helburua bete da beste urte batez Lesakan.

FUTBOLA

# Berako Gure Txokoa taldeak ez du denboraldi ona egin

## Jautsiera postuetatik hurbil egon da baina maila erraz atxiki du



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

**Berako Gure Txokoako futbol talde nagusiak entrenatzailerik gabe eta jokalari gazteekin ekin zion denboraldiari. Gibeleko postuetatik hurbil ibili da urte osoan, baina maila mantentzea lortu du.**

Gure Txokoako futbol talde nagusiak talde hagitz gaztearekin eta entrenatzailerik gabe ekin zion denboraldiari. Aitzineko denboraldian Preferentera igotzeko promozioa jokatu baldin bazuen ere, aurten kontuak bertzelakoak izanen zirela abudo somatu zen. Matzadan galdu eta azken postuan hasi baldin bazen ere, pixkanaka emaitzak hobetu eta jautsiera postuetatik ateratzea lortu zuen taldeak. 16 taldeko multzoan, azkeneko hiruek galtzen zuten kategoria eta Berako talde nagusia mugan ibili da denboraldi osoan, baina gehienetan salbazioaren aldetik. Honela, 2005. urte osoa 13. postuan egin du, jautsieratik postu bakar batera, baina beti puntutarte erosoarekin. Liga akautzeko hiru partida falta zirela matematikoki segurtatu zuen Erregionaleko lehen mailan segituko duela heldu den urtean.

Jubenilek liga polita egin dute Gipuzkoako bigarren mailan. Joan den denboraldian jautsi ziren eta aurten, igoera faserako sailkatzea lortu dute. Hemen ez dute igotzerik lortu, baina 5. postua eskuratu dute. Dena den, heldu den denboraldian, taldea aunitz berrituko dela kontuan hartuz, ez zuen jubenil taldeak igotzeko grina handirik.

Kadeteek, Gipuzkoako bigarren mailan, jubenilen gisako denboraldia egin dute. Lehen fasean ongi aritu ziren eta igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu zuten. Hauek ere ez dute igoera lortu azkenean.

Infantiletan, Gipuzkoako lehen mailan aritu dira. Ez zuten igoera faserako sailkatzea lortu eta kopan aritu dira.

| GURE TXOKOA ERREGIONALEKO LEHEN MAILA | |
|---|---|
| Ander ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Xabier GARMENDIA IRIZAR | BERA |
| Iñigo ALTZUGUREN ARNIS | BERA |
| Felix ALTZATE SARRATEA | BERA |
| Angel Mari ARANIBAR ALMANDOZ | BERA |
| Joseba PETRIRENA ANSALAS | BERA |
| Imanol OIARTZABAL URANGA | BERA |
| Asier IRATZOKI ZUBIETA | BERA |
| Adrian ORDOKI IRATZOKI | BERA |
| Mikel ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Jose Ignacio LASAGA ARBURUA | BERA |
| Eduardo ETXEBESTE IANTZI | BERA |
| Alain MORCILLO ARTIEDA | BERA |
| Mikel LARRETXEA ERRANDONEA | BERA |
| Aitor IRATZOKI GELBENTZU | BERA |
| Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR | BERA |
| Gorka FEITO BERGARA | LESAKA |
| Ikor ALBISU ALTOLAGIRRE | BERA |
| Txomin ELGORRIAGA ASTONDOA | BERA |
| Anger PONBAR SAINZ | BERA |
| Asier LARRAÑAGA ALBERDI | BERA |
| Iñaki IRATZOKI OHARRIZ | BERA |
| Masajista: Amaia GARCIA • Ordezkaria: Luis IRAZOKI ETXEGARAI | |

BERATARRA
ARGIÑAK
Jose Ignacio MARITORENA LARRALDE
DONEZTEBE 670 48 93 37
Pedro BERASATEGI DAGERRE
BERA 617 34 63 78

# FUTBOLA

| GURE TXOKOA: JUBENILAK (GIPKO 2. MAILA) | |
|---|---|
| Xabier ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Ekhiotz ZUBIETA BERTIZ | BERA |
| Eneko TELLETXEA ARBURUA | BERA |
| Eneko AGIRRE ARRIETA | BERA |
| Iñigo BLAS OTONDO | BERA |
| Iñigo JAUREGI AGIRRE | BERA |
| Beñat IRAZOKI ISASI | BERA |
| Ugaitz ADO PRIETO | BERA |
| Patxi RODRIGUEZ IRAZOKI | BERA |
| Jokin IANTZI IRIGOIEN | BERA |
| Aitzol IRIZAR ARISTIA | BERA |
| Jon ERRANDONEA ETXEBERRIA | BERA |
| Iñaki ESKUDERO OLAZIREGI | BERA |
| Aritz ARBELAITZ IGOS | BERA |
| Iosu TOMASENA LOSADA | BERA |
| Xiker KORTARI GOIKOETXEA | BERA |
| Mikel PIKABEA MARTIN | BERA |
| Iñigo ZELAIETA ALONSO | BERA |
| Gwendal LARQUE SANJURJO | BERA |
| Entrenatzaileak: Patxi RODRIGUEZ LOPEZ-Jokintxo IANTZI ARANBURU | |



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Gure Txokoako jubenilek igoera fasea jokatu dute, baina ez dira igoko.

| GURE TXOKOA: KADETEAK (GIPKO 2. MAILA) | |
|---|---|
| Jon IRATZOKI GUIMON | BERA |
| Julen JIMENEZ ANDRES | BERA |
| Aitor IANTZI GOIENETXE | BERA |
| Joseba GARMENDIA IPARRAGIRRE | BERA |
| Beñat ITURRIA CUARTERO | BERA |
| Andoni MARTINEZ GUERRA | BERA |
| Ikor POYADENA ERRANDONEA | BERA |
| Jon Esteba AGARA SILVA | BERA |
| Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO | BERA |
| Jon ERRANDONEA MARTIN | BERA |
| Jon IRATZOKI ZELAIETA | BERA |
| Iñigo ERKIZIA IRATZOKI | BERA |
| Mikel MORCILLO ARTIEDA | BERA |
| Mikel GOIENETXE PIKABEA | BERA |
| Imanol CALDERON AGIRRE | BERA |
| Asier CALDERON AGIRRE | BERA |
| Jon ZELAIETA DANBORIENA | BERA |
| Gorka PRIETO BELLUER | BERA |
| Entrenatzailea: Angel PONBAR SAINZ | |



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Gure Txokoako kadeteek ere jubenilen gisako ibilbidea egin dute aurten. Igoera fasea jokatu dute, baina igoerarik lortu gabe.

ugaldea

asesoria • aholkularitza

Rafa Ponbar

Tel: 948 63 02 01 • Fax: 948 63 02 55 • e-posta: asesoria@ugaldea.com

Bidasoa 41 • BERA

| GURE TXOKOA: INFANTILAK (GIPUZ. 1. MAILA) | |
|---|---|
| Julen La Torre GOIA | BERA |
| Jose Mari ETXABE SANZ | BERA |
| Mikel AGARA MARTINEZ | BERA |
| Asier ANDUEZA OSTOLAITZ | BERA |
| Mikel MARTINEZ AGIRRE | BERA |
| Asier GARCIA ERRANDONEA | BERA |
| Jonatan GUENETXE BALDA | BERA |
| Gorka TOLOSA BURLADA | BERA |
| Unai ICOA MIGELTORENA | BERA |
| Andoni RIOPEDRE HUITZI | BERA |
| Imanol ENDARA IRIGOIEN | BERA |
| Imanol MORENO ALUNDA | BERA |
| Julen BALEZTENA RUDI | BERA |
| Shamal VAZQUEZ TARAZONA | BERA |
| Carlos GONZALEZ ZAMORA | BERA |
| Jeremias PEREZ CONTELL | BERA |
| Eneko MARTINEZ EAGOAGA | BERA |
| Entrenatzailea: Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR | |


Argazkia: José Mari Telletxea
Gure Txokoako infantilek Gipuzkoako liga eta Kopa jokatu dute.






ARETO-FUTBOLA

# Gure Txokoako areto-futbol taldeak maila galdu du azken jardunaldian

## Hondarreko partida irabaztea aski zuen, baina berdindu egin zuen eta arerio zuzenak irabazi



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

**Gure Txokoako areto-futbol taldeak kategoria galdu du azkenean.**

| GURE TXOKOA ARETO-FUTBOL TALDEA | |
|---|---|
| Jon ALTZUGUREN ERRANDONEA | BERA |
| Igor TXOPERENA ALDALUR | BERA |
| Igor PANDO ARAMENDI | BERA |
| Sabino GOMEZ RODRIGUEZ | BERA |
| Sergio JARALERA UBRIC | BERA |
| Aritz PEREZ ARTIEDA | BERA |
| Iñaki ZELAIETA ERASUN | BERA |
| Patxiko ARTIEDA APEZTEGIA | BERA |
| Jabier IRIARTE SANSINENA | ETXALAR |
| Jokin RICO LOPEZ «ZIZU» | BERA |
| Jose Luis TAPIA IDUZKIAGIRRE | BERA |
| Rafa CRIADO DEL PUERTO | BERA |

Gure Txokoako areto-futbol taldeak denboraldia "autonomika" mailan hasi zuen, nahiz eta aurreko denboraldian lehen mailako laugarren postuan geratu eta igotzeko eskubiderik ez izan. Hutsuneak zeudela eta, autonomikara igotzea proposatu zieten eta proposamena onartu zuten.

Lehenengo buelta kaxkarra izan zen eta puntu gutxi lortu zituzten.

Emaitzek laguntzen ez dutenean gertatu ohi denez, otsaila inguruan nahikoa lan zuten deialdiak osatzeko, beti jendefaltarekin ibiltzen baitziren. Hala ere, partidutara joaten segitzen zutenek erreakzio ona izan zuten bigarren itzuliaren hasieran, eta jarraian 4 partidu puntuatu ondotik, gauzak hobetu ziren. Lesionatuta zegoen jendea errekuperatzen hasi zen eta gutxienez, ez zegoen jende faltarik. Bigarren itzuliko partidu aunitzetan ez zuten zortea beraien alde izan eta partidu aunitz gol bakar baten aldearekin galdu zituzten. Bukaera aldera puntu batzuk lortu eta jautsiera postuetatik urruntzea lortu zuten, itxuraz bederen. Baina azkeneko jardunaldian, 2 puntuko abantaila zuten azkenaurrekoa zegoen Zarautzen aurrean. Baina gol-average delakoa gipuzkoarren alde zela, Gure Txokoakoek nahikoa zuten beraiek egindako emaitza bera lortzen bazuten.

Beratarrek Lasarteko Clinica Aldazen kontra 2-2 berdindu zuten azken partida hori, eta Zarautzek eginen zuenaren zain geratu ziren. Zarautzek bere partidua irabazi eta 23 puntutara berdinduta, beraiek lortu dute kategoriari eustea eta Gure Txokoa 1.mailara jautsiko da.


Zelaieta
Maquinaria de panadería • Bakery machines

ZELAIETA TAILERRAK

Okindegirako tresneria

Zalain Ind., 19. Postakutxa · BERA
Tel.: 948 63 10 04 · Faxa: 948 63 13 08
e-posta: info@zelaieta.com
www.zelaieta.com

SASKIBALOIA

# Toki-Ona Bortziriak taldea lehen aldiz senior mailan

## Aurreinfantil mailako neskak ere lehen aldiz kantxaratu dira



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

**Lehen aldiz kantxaratu den senior mailako Toki-Ona Bortziriak saskibaloi taldean, junior mailatik pasatutako jokalariak eta beteranoak elkartu dira.**

Aitzinetik junior mailako taldearekin egindako lanari segida emanez, denboraldi honetan lehen aldiz senior mailako taldea kantxaratu du Toki-Ona Bortziriak saskibaloi taldeak. Horretarako, junior mailatik pasatutako jokalariekin batera, bere garaian Lesakako Beti Gazte saskibaloi taldean aritutako jokalari *beteranoak* eta, bertzerik gabe, saskibaloirako afizioa duten bertze jokalariak sartu dira taldean. Lehenbiziko urtea izateko, liga txukuna egin dute Toki-Ona Bortziriak taldekoek Nafarroako senior bigarren mailan. Lehen fasean hirugarrenak izan ziren sailkapen orokorrean, 12 partiduetatik 8 irabazi eta lau galduta. Horrek, lehenbizikotik zortzigarrenera bitarteko postuak erabakitzeko ligaxkan sartzeko eskubidea eman zien. Bigarren fase honetan nahiko lan izan zuten lesioekin, baina halere lan txukuna egin zuten: seigarrenak izan ziren, 14 partiduetatik 4 irabazi, 1 berdindu eta 9 galdu ondotik.

Baina senior mailako taldea ateratzeak ez du behetik saskibaloian egiten den lana alde batera utzi dela erran nahi. 2004ko irailean saskibaloiko kirol eskola sortu zen DBHko ikasleentzat, neska nahiz mutikoentzat. Nafarroako Kirol Jolasen barrenean, nesken aurreinfantil mailako taldeak zazpi partida jokatu zituen. Hasi berriak direla kontuan hartuz, zazpiak galdu egin zituzten, baina partidutik partidura hobekuntza somatu zen. Mutikoek, aldiz, adin ezberdinetakoak izanik, ez dute konpetizioan parte hartzerik izan eta adiskidantza partidak jokatu dituzte Irungo talde baten kontra.

| TOKI-ONA BORTZIRIAK: NAFARROAKO SENIOR 2 | |
|---|---|
| Jon IRATZOKI MARTIKORENA | BERA |
| Julen ESPINOSA MARTINEZ | BERA |
| Fermin BERRUETA PEREZ-LUCAS | BERA |
| Ruben TORRE MINDEGIA | BERA |
| Iñigo IRATZOKI MARTIKORENA | BERA |
| Mikel IRATZOKI BELARRA | BERA |
| Aitor EZEIZA BERGARA | BERA |
| Iker JUAREZ IRAOLA | BERA |
| Imanol ETXEBERRIA GARCIA | LESAKA |
| Francisco TELLETXEA OTXOTEKO | LESAKA |
| Francisco Javier OIARTZABAL ALTZUGARAI | LESAKA |
| Mikel GARCIA GARCIA | LESAKA |
| Roger BERMAN | ETXALAR |
| Urko AÑORGA REKARTE | IRUN |
| Entrenatzaileak: Imanol ETXEBERRIA GARCIA eta Roger BERMAN | |
| Delegatua: Jesus ALACID CLEMENTE | |

| TOKI-ONA BORTZIRIAK: AURREINFANTIL NESKAK | |
|---|---|
| Begoña TAPIA | BERA |
| Clara ZIA DANBORIENA | BERA |
| Maialen TXANTRE IRATZOKI | BERA |
| Hegoa TELLETXEA ANDUEZA | BERA |
| Jaione ETXABE SANZ | BERA |
| Leire ZIA DANBORIENA | BERA |
| Elixabet IRATZOKI ZELAIETA | BERA |
| Leire ELIZAGOIEN MENDIBERRI | BERA |
| Irati ERRANDONEA ZOZAIA | BERA |
| Itxaro ERRANDONEA ARANIBAR | BERA |
| Andrea IRATZOKI GUIMON | BERA |
| Jeanette ALONSO ZOZAIA | BERA |
| Entrenatzaileak: Jesus ALACID eta Mikel IRATZOKI | |



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Aurreinfantil mailako nesken saskibaloi taldeak zazpi partidu jokatu ditu Nafarroako Kirol Jolasen barrenean.**

"la Caixa"

LA CAIXAN AURREZTEA
ERRENTAGARRIAGOA
ATERAKO ZAIZU

# PLAZO FINKOA
# %3 TAE

BERA • 948 625 471
ELIZONDO • 948 581 414

## GOIZUETA

# EHNA Udalak tramitatuko du hemendik aurrera

### Lubineko frontoia L&M Ingenieric-ek moldatuko du



Argazkia: Mattalis APEZETXEA
**Argazkiko hauek dira maiatzaren 15ean lehen jaunartzea egin zuten herriko neska-mutikoak.**

**Esteban AROTZENA**

Dagoeneko milaka eta milaka euskal herritarrek eta ia berrehun goizuetarrek patrikan daramaten euskal karneta, EHNA alegia, udalak berak tramitatuko du hemendik aurrera. Horretarako bulego orduetan joan behar da Herriko Etxera, eta orain arte bezala, erroldaedo enpadronamendua, hiru argazki eta 15 euro beharko dira euskal naziotasunaren agiri hau eskuratu ahal izateko.

### *Lubineko frontoia*

Bere garaian TTIPI-TTAPAN agertutako Lubineko frontoiaren berritze proiektuak bi enpresen eskaintzak jaso ditu. Zabala y Goikoetxearena 218.330 eurokoa eta L&M Ingenieric enpresarena 198.371 eurokoa. Udalbatzak bere azken plenoan, bigarren honi eman zion aipatutako obra. Bost hilabeteko epea izanen du Altsasuko enpresa honek lanak bukatzeko.

### *Mus txapelketa*

Ekainaren 11ko 17:00etan hasiko da Umore Onak antolatzen duen mus txapelketaren aurtengo edizioa. Txapelketaren berezitasuna ez da bakarrik ordutegia izanen. Sariak ere ez baitira nolanahikoak. Nekazaritza turismo etxe batean lau lagunek asteburua igarotzeko txartela eskuratuko du bikote txapeldunak. Azpitxapeldunek berriz, punta-puntako jatetxe batean bi otordu izanen dute saritzat.



Argazkia: Mattalis APEZETXEA
**Iazko urriaz geroztik herriko 40 emakumek egindako eskulanik politenak ikusgai izan ziren Ganbaran maiatzaren 13tik 15eko asteburuan.**

## ARESO

# Joseba Olazabal Caballero kirolariaren heriotzak gogor astindu du herria

### Bizikletan zihoala auto batek jo eta istripuan hil zen sokatira taldeko gaztea



Argazkia: Berria
**Joseba Olazabal, kamarari begira, sokatira taldearen entrenamendu batean.**

**Juana Mari SAIZAR**

Joseba Olazabal, herriko kirolari gaztea, 25 urterekin galdu du biziaistripu batean, berak maite zuen kirola egiten. Bere heriotzak ordea, beste batzuen bizia ekarri du, bere gorputzeko organoek besteei zoriona ekarri baitie. Bere familia, herrikoa den bere neska, sokatira taldea eta lagunak gogor astindu ditu berri honek. Azken agurra txundigarria izan da, zer nolako jendetza mugitu zen elkartasuna adieraztera, elizako barrena eta kanpoko aldeak beteta... Eskerrak aurretik pentsatzen zela zer nolako auto ilarak sortuko ziren, eta antolakuntza martxan jarri zela. Kanpotik etorritako autoak 420tik gora izan omen ziren. Heriotza honek gogoeta egiteko balio izango al du? Egun horietan ikusi diren maitasun eta elkartasuna, eguneroko biziztan erabiliz gero, ez ote litzateke desberdina izango gure bizimodua?

BAZTAN

# Herriari buruzko dokumentazioa lokalizatu eta baloratzeko beka deialdia egin da

Balleko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak deituta



ARGAZKIA: FERMINTXO GARTXITORENA

***Herrietako udako bestak abiatu dira***

**Lehenik Iruritako Salbatoreak izan ziren, segidan Berroetako Mendekoste bestak, bere asto-karrera eta guzti, eta gero, Almandozko Bestaberri bestak. Orai, atsedenaldi ttiki baten ondotik, erreldoan etorriko dira Arizkungo Sanjoanak, Erratzuko Sanpedroak, Azpilkuetako Sanferminak, Elizondoko Santioak, Amabirjin bestak hainbat herrietan... Uda bertan dugu eta udarekin, besta giroa ere somatzen hasi gara Baztanen.**

**ttipi-ttapa**

Baztan Balleko Udalak eta Eusko Ikaskuntza erakundeak Baztani buruzko dokumentazio guztia lokalizatzeko eta baloratzeko bekaren lehenengo zatiaren deialdia egin dute. Baztani buruz dagoen dokumantazio guztia lokalizatzea eta baloratzea izanen da beka honen helburua. Horretarako argitaratu edo argitaratu gabeko bibliografia, artxiboetako dokumentazioa nahiz bertze euskarri batzuetakoa aztertu beharko da. Lehenengo zati honetan lehentasuna Nafarroan dagoen dokumentazioaren azterketak izanen du.

Beka eskuratzeko hautagaiak historian lizentziatuak izan beharko dute edo egin beharreko lanaren arloan esperientzia dutela frogatu beharko dute. Eusko Ikaskuntzako kide izanen dira edo bertzela lana hasterako kide izateko eskaera luzatu beharko dute. Baztanen edo inguruko herrietan erroldatutakoek lehentasuna izanen dute.

Dokumentazioa aurkezteko epea ekainaren 24an akituko da, Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan edo Baztan Balleko Etxean. Eskariak egiteko inprimakiak ere Eusko Ikaskuntzaren bulegoetan edo Baztango Udaletxean jaso daitezke, baita www.eusko-ikaskuntza.org web orrialdean.

Beka honek 3 hilabeteko iraupena du, proiektu irabazlea aukeratzen den momentutik aitzinera. Bekaren zenbateko gordina 1.750 eurokoa izanen da eta gehienez 250 euroko dotazioa izanen du bidai gastuentzat. Beka hiru zatitan ordainduko da, lehenengoa lana hasterakoan, bigarrena bekaren erdian, ikerketaren eboluzioari buruzko txostena aurkeztu ondotik, eta hirugarrena eta azkena, dagokion lana entregatzerakoan, baldintza guztiak bete dituela egiaztatuz gero.

### *Aro berriko lehen kontzertua eskainiko du Elizondoko koralak*

Larunbat honetan, ekainaren 4an, Elizondoko koralaren berrestrenaldi kontzertua izanen da Elizondoko elizan, 20:15etan. Aro berri honetan, Isabel Lacar lesakarrak zuzenduko du taldea.

### *Aldudeko bidea aztertzeko ez ohiko Junta*

Maiatzaren 19an, Baztan eta Aldude arteko errepidearen trazatu ezberdinak aztertu eta eztabaidatzeko ez-ohiko Junta Generala egin zen. Maiatzaren 28an, berriz, juradoak Belaunaldera gatekoak ziren, lau bide ezberdin horiek nondik liratekeen ikusteko.






## AZKAIN

# «Pastore Lore» besta antolatu du Herriko Etxeak




***Azkaineko 42 Bai Euskarari ziurtagiriduni omenaldia***
**Euskal Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Euskal Konfederazioak Azkainen Bai Euskarari ziurtagirien ekitaldia egin zuen maiatzaren 17an. Bertan, 42 saltegi, ostatu, lantegi, elkarte eta osasun kontsulta omendu zituzten ziurtagiia jaso zutelako.**

**Angela eta Xamo**

Herriko Etxeak "Pastore lore" besta antolatuko du bigarren aldikotz heldu diren ekainaren 4 eta 5ean. Gan den urtean egun horrek arrakasta handia izan zuen. Aurten ere, antolatzaileek egitarau aberatsa konposatu dute. Horra, beraz, zer atxemanen dugun heldu den astebururan:

Ekainaren 4an: Lore jokoa zaldiz, "Hidalgo" deitu filmaren hedapena frontoian.

Ekainaren 5ean: Pottoken elgarretaratzea Hiru Iturri Edernetako korral handian, pottoken herriratjaustea, 400 pottoken etortzea abeltzainak inguraturik, Beñat Achiary kantuz, pottoken sariketa, haurrentzat lehen entsegua pottoken gainean, bertsularlak, ardi saldoen etortzea, ardi-ilemoztea eskuz eta elektrikaz, behoka biltze erakuspena haurrentzat, pilotasoro bota luze (pilota partida desafioa artzainen artean), mutxikoak.

Egun guztian: eztiaren eta erle-lanen erakusketa. Lihoaren erakusketa, landatik hasi eta oihala egite arte. Etxetiar ekarle. Sagarno. Bidagurdi ibiltze.

### *Erakusketa*

Maiatzaren 30etik ekainaren 5erat, Herriko Etxeak erakusketa bat proposatzen du Jauregian Txalaparta gaiaren inguruan.

### *Aldean*

Aldean ostatuak ateak etsi ditu gan den maiatzaren 20an. Pampik, 10 urte pasatu ditu bere ostatuaren erakusmahainaren gibelean. Herste horrekin, Azkaingo herriko plazako historiaren omalde tiki bat bilatzen dugu, jakinez Azkaindar ainitzek gustoko zutela momentu goxoak pasatzea Pampi-ren konpainiarekin. Gertakari hori ospatzeko, Pampik usaiako bezeroak gomitatu ditu azken arrats bat pasatzeko, botoilen huste baten inguruan, usaian egiten den bezala.



**Maiatzaren 21ean, jende asko etorri da saski baloi eguna ospatzera. Arratsaldeko partidek arrakasta handia izan dute, batez ere hezitzaile eta burasoen artean. Arratsean, 130 jende bildu da Beñat egindako afariaren inguruan.**

### *Azkaingo gau eskola erakasle bila*

Gau eskolako urtearen bukaera hurbiltzen da. Heldu den klase sartzea antolatzeko, Azkaingo gau eskolak bederen bi erakasle xekatzen ditu. Aurten, hiru klase idekiak izan dira, bi erakasleekin. Bi erakasle horiek ez segitzea erabaki dutelako, gau eskolako egoera iluntzen ahal da fite, ez baldin baditu erakasleerik atsematen. Interesatua baldin bazarete deitu zenbaki huntara: 0683383942.
















ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

# Mugaz gaindiko proiektu batean parte hartzen dute 14 ikaslek

## Amotzeko ikasleekin batera ipuina asmatu, koreografia egin eta jendaurrean erakutsi dute

**Margari eta Koro**

Eskolako 14 ikaslek Mugaz gaindiko proiektu batean parte hartzen ari dira, Amotzeko (iparralde) eskolako ikasle batzuekin batera. Elkarrekin ipuina asmatu dute, ondotik Miarretzeko dantzari profesional baten laguntzarekin koreografia jarri diote, eta orain jende aurrean erakutsiko dute lan hau. Maiatzaren 27an Urdazubiko eskolan herritarren aintzinean aritu ziren, bainan emanaldi nagusia ekainaren 3an eginen dute Miarritzeko antzokian, bertze eskola batzuekin batera, eta finitzeko Miarritzeko Dantza Talde Profesionala arituko da.

### Udaberriko Bira eta parrokien topaketa larunbatean

Ekainaren 4a egun mugitua izanen da Zugarramurdin: alde batetik "Udaberriko Bira" dela-eta arratsaldeko 6:30tan Akelarrenean Panta-Rhei Taldeak "Txaribari" antzerkia eskainiko du; eta bertzetik Amaiur-Erratzu-Arizkun-Urdazubi-Zugarramurdi herrietako parrokietako kristauen topaketa ere Zugarramurdin eginen da. Azken huntako bazkarirako txartelak elizan edo ostatuan hartu daiteke 15 euroan (20 euroan autobusa ere nahi bada).

### Sorginen epaiketari buruzko liburua agertu da

Zugarramurdin sorgin izateagatik erre zituzten haiek, oraindik notizia ditugu. Aintzineko egun horietan jakin da pertsona hauei egin zitzaien epaiketari buruzko liburu bat agertu dela. Liburu hau duela 400 urte idatzita zegoen bainan ez da orain arte ezagutu. Liburu bakarra omen da, ez omen da halako bertzerik. Bitxikeria historiko bat denez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak erosi du.



**Joana (Zugarramurdikoa), Angel eta Jaione (Urdazubikoak). Maiatzaren 22an Jaunartzea hartu zuten. Jaunartzeak txandaka egiten dira. Aurten Zugarramurdiko elizan egitea tokatzen zen, eta beraz, heldu den urtean Urdazubikoan eginen dute.**

### Arkupeak elkarteak delegatu berria Zugarramurdin

"Arkupeak" Zugarramurdin duen delegatua aldatu du. Orain arte zegoen Jesus Ansalasek utzi du, eta Mertxe Arburuak hartu du.

SARA

# San Josepe eskolak, entzuleen lehen saria lortu du Hazparnen

## Iparraldeko Haur Kantu txapelketaren finalean

**Laetitia, Sandrine eta Krispin**

Maiatzaren 14an Hazparneko Mendeala gelan, San Josepe eskolak entzulegoaren lehen saria irabazi du.

Eskolako 17 haurrez osaturik, Sarako taldeak Haurtxoen mailan parte hartu du lehiaketan "Larrun xokoan" kantuarekin. Kantu hortan, jende batzuen dohaiak azpimarratzekoak dira: hain zuzen, idazle fina eta ona izan den Manex Bergara zenaren hitzak dira eta musikaren doinua Mañu Courtois-k egin du. Oroz gainetik, eskertzen ahal dugu bihotzetik Martina Goyetcheren engaiamendua, bere kar guziarekin haurrak motibatu baititu errepikatzen eskolan jostaldi denboretan. Txapelketa hortan 61 talde edo bakarlari aritu dira, bai haurtxoen mailan bai gaztetxoen mailan, eta 16 sorkuntza izan dira.

Irabazleak aipatu behar dira ere. Hazparneko Ezkia Ikastolak, CM1 eta CM2 klaseak, "Tsunami" kantu ederrarekin epaileen lehen saria lortu duen. Hitz hunkigarriak aparte, musika ederrak merezi izan du lehen saria.

Bihotzetik mila esker haur maitiak edozoin eskualdetakoak, ikuskizun eder horren eskaintzeagatik, zuen beldurra ongi gordeturik, eta erakutsi duzuen jendetasunarekin. Eskerrak eta xantza on haurrak bide hori segi ezazue eskuararen alde.




***Manex Bergararen omenaldia***

**Marie Pierre Pradère eta Mixel Guerendiainek Manex Bergararen bertsuak argitaratzearen xedea zuela zonbeit urte beren baitan zuten eta azkenean 2002ko udazkenean abiatu ziren bide hortatik. Orai, argia ikusi du «Gauza ageria!» liburuak.**



# EZKONTZAK

**Iñigo Erize Larunbe** eta **Guiomar Rey Muiño**, Iruñekoak Beran, maiatzaren 14an.
**Angel Maria Goikoetxea San Juan** eta **Miren Josune Urroz Telletxea**, Berakoak, maiatzaren 14an.
**Alejandro Altzuguren Matxikote** eta **Maria Antonia Zabala Baigorri**, Bera eta Hondarribiakoa, maiatzaren 17an.
**Ignacio Martin Eskudero** eta **Maria Inmaculada Alduntzin Sagastibeltza**, Paris (Frantzia) eta Iruñekoa, Beran, maiatzaren 18an.
**Aritz Aierbe Goenaga** eta **Elena Irigoien Arbizu**, Berrobi eta Leitzakoa, maiatzaren 14an.
**Francisco Xabier Goikoetxea Irurtia** eta **Itziar Telletxea Iribarren**, Donostia eta Iruñekoa, Leitzan, apirilaren 30ean.
**Juan Ignacio Larraioz Ariztegi** eta **Nerea Altzuri Ordoki**, Urrotz eta Arantzakoa, maiatzaren 14an.



# SORTZEAK

**Joseba Martikorena Saharrea**, Berakoa, maiatzaren 18an.
**Joritz Golenetxe Maritxalar**, Berakoa, maiatzaren 19an.
**Jon Urdanpilleta Zabala**, Goizuetakoa, maiatzaren 7an.
**Naroa Lizarazu Etxegoien**, Goizuetakoa, maiatzaren 12an.
**Iraia Sanz Feito**, Lesakakoa, maiatzaren 3an.
**Beñat Iturria Altzuguren**, Lesakakoa, maiatzaren 18an.
**Eloi Sanchez Arakues**, Lesakakoa, maiatzaren 16an.
**Miguel Ubiria Alzate**, Lesakakoa, maiatzaren 19an.
**Janire Olartzabal Telletxea**, Oizkoa, maiatzaren 11n.
**Alaine Hernandez Mariezkurrena**, Beintza-Labaiengoa, apirilaren 21ean.
**Nahia Juanena Frias**, Elizondokoa, maiatzaren 8an.
**Xuban Bias Irisarri**, Elbetekoa, maiatzaren 15ean.
**Haizea Maritorena Erroz**, Anizkoa, maiatzaren 20an.
**Soraya Atxokarro Tolosa**, Aresokoa, maiatzaren 24an.



# HERIOTZAK

**Victorino Rodriguez Garcia**, Berakoa, maiatzaren 16an, 81 urte.
**Maria Josefa Aranburu Billabona**, Leitzakoa, maiatzaren 10ean, 53 urte.
**Luciano Sein Sansiñena**, Igantzikoa, maiatzaren 16an, 69 urte.
**Silvia Etxeberria Ameztoi**, Igantzikoa, maiatzaren 21ean, 88 urte.
**Francisco Ustaritz Jaurena**, Arizkungoa, maiatzaren 14an, 74 urte.
**Remigia Erasun Iriarte**, Beintza-Labaiengoa, maiatzaren 14an, 91 urte.
**Francisca Aierza Bereau**, Lesakakoa, maiatzaren 14an, 87 urte.
**Lander Santamaria Apeztegia**, Elizondokoa, maiatzaren 17an, 20 urte.
**Marcelino Zaldain Zugarramurdi**, Urdazubikoa, maiatzaren 20an, 83 urte.
**Joseba Olazabal Caballero**, Aresokoa, maiatzaren 20an, 25 urte.
**Joaquina Saharrea Aleman**, Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 20an, 73 urte.
**Agustin Migeltorena Sagardia**, Doneztebekoa, maiatzaren 21ean, 81 urte.
**Ramon Franzesena Igoa**, Arraiozkoa, maiatzaren 22an, 83 urte.
**Jesus Mari Erbiti Amatriain**, Beran, maiatzaren 22an, 78 urte.

**Landertxo**
**SANTAMARIA APEZTEGIA**

*Ikastolako kimu*
*lankide-semea*
*gurekin egon zinen*
*zinelaik umea*
*etorri zaizu goizik*
*joateko unea*
*danbor soinuz alaitu*
*dugun hutsunea.*

**BAZTAN IKASTOLA**

**Landertxo**
**SANTAMARIA APEZTEGIA**

*Urak dakarrena*
*urak daroa*
*zuk emandakoa*
*gurekin geldituko da.*

**TTIPI-TTAPA Fundazioko langileok bat egiten dugu Lander Santamaria laguntzaile-lankideak eta bere familiak une gogor hauetan bizi duten saminarekin.**


Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

KULTURKARI
Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

## PILOTA



Argazkia: Foto ZALDUA

**Doneztebeko Erreka elkarteak hirugarren urtez antolatutako pilota txapelketako finaletan aritu ziren pilotariak, sariak banatu zituzten pilotari profesional eta agintariekin batera.**

# Doneztebeko pilota txapelketaren finalak jokatu ziren maiatzaren 14an

### Erreka elkarteak antolatu du hirugarren urtez

A.A.

Maiatzaren 14an jokatu ziren Doneztebeko udal pilotalekuan Erreka elkarteak hirugarren urtez antolatutako pilota txapelketaren finalak.

Aurrebenjamin mailan, binakako txapelketan, Alzugarai eta Juankorenak 18 eta 14 irabazi zieten Mitxeo eta Retegiri. Ez zen Julen Juankorenak irabazi zuen txapel bakarra izan, buruz buruko txapelketaren finala ere irabazi baitzion Jon Belarrari, 18 eta 15.

Benjamin mailan, urdin eta Agirrek 18 eta 14 irabazi zieten Garate eta Telleriari. Bigarren mailako alebin mailan, Artazkoz eta Anduezak 18 eta 14 irabazi zieten Altxu eta Alvarezeri. Pilota goxuarekin jokatutako txapelketaren finalean lehia estua izan zen eta azkenean Dabid eta Xabik 22 eta 21 irabazi zieten Antton eta Tomaseri. Infantilen bigarren mailan, Aiestaran eta Iraolak 18 eta 9 irabazi zieten Aranburu eta Altxuri eta kadeteen bigarren mailan, Baleztena eta Babazek 22 eta 16 irabazi zieten Grajirena eta Mitxelenari.

Arratsaldean jokatutako partidetan, alebinen lehen mailako finalean, Juango eta Berazak 18 eta 13 irabazi zieten Senosiain eta Larrayari. Infantilen lehen mailan, Angulo eta Zabaletak 18 eta 9 irabazi zieten Ciria eta Pazoseri. Kadeteen lehen mailan, Santesteban eta Ulzurrunek 22 eta 2 irabazi zieten Iturria eta Fagoagari. Jubeniletan, binakako finalean Ollo eta Etxeberriak 22 eta 5 irabazi zieten Irurita eta Linzoaineri. Banaka, berriz, Iraolak 22 eta 3 irabazi zion Otxotorenari.

Senior Maila nagusian, Errekako Onsalo eta Erasok uste baino errazago, 22 eta 7 irabazi zieten Paz de Zigandako Urtasun eta Orozeri.

# Aimar Olaizola goizuetarrak eta Irujok jokatuko dute buruz buruko finala

### Ekainaren 5ean Atano III.an izanen da partida haundia

Aimar Olaizola goizuetarrak eta Juan Martinez de Irujo, gaur eguneko txapeldunak jokatuko dute Esku Pilota Enpresen Ligak antolatutako eskuz banakako txapelketaren finala. Hitzordua igande honetan, ekainaren 5ean, izanen dute, Donostiako Atano III. pilotalekuan.

Elkarren kontra buruz buru behin bakarrik jokatu dute Aimarrek eta Irujok, iazko txapelketaren finalerdiko ligaxkan, eta orduan Iberokoak 22-1 irabazi zion goizuetarrari.

Aurtengo txapelketari dagokionez, bi finalistak final laurdenetan hasi dute ibilbidea. Olaizola II.ak Zearra kanporatu zuen (22-9) eta finalerdian Gonzalezeri gailendu zitzaion (22-6). Irujok lan gehiago egin behar izan du. Asier Olaizolari 22-16 irabazi zion eta finalerdian Patxi Ruizeri 22-21 irabazi zion, doi-doi.

## HERRI KIROLA



## HERIOTZA

Joseba OLAZABAL

### Aresoko sokatira tiralari gaztea istripuan hil da

Maiatzaren 19ko gauean, Aresoko sokatira taldearekin entrenamendua egin eta etxera bizikletan zihoala auto batek jo, eta biharamon goizean hil zen Joseba Olazabal Caballero tiralaria, 25 urte zituela. Heriotza horren ondorioz, bertan behera geratu zen asteburu horretan Zamudion jokatu behar zen Lauko lur gaineko sokatira txapelketako jardunaldia, Aresoko taldeak ere parte hartzen baitu txapelketa honetan. Joseba Olazabal 15 urte zituela hasi zen sokatiran, Aresoko goma gaineko taldearekin eta hainbat txapel irabazi zituen. Aresoko taldea lur gainera pasatu zenean, Olazabalek lanean segitu zuen taldean. Horren ondorioz, joan den urteko argazkian Euskadiko 560 kilokoa irabazi ondotik ageri den bezala, txapelak pilatzen segitu zuen. Heriotz honek samindurik eta atsekabeturik utzi du herri kirolaren mundua.

ATLETISMOA

# Gabriel Garin nagusitu zen Lesakako XI. Herri Lasterketan



## Rafa Maritxalar hirugarren izan zen

A.A.

Hiru Herri taldeko Gabriel Garin korrikalaria nagusitu zen maiatzaren 22an Lesakako Batzoki Elkarteak antolatutako XI. herri lasterketan, Rafa Maritxalar sanan, 8 kilometroko ibilbidea 24 minutu eta zazpi segundutan osatru ondotik. Bigarren postua Alberto Olague taldekidearentzat izan zen, 16 segundura eta hirugarren postua Rafa Maritxalar lesakarrak eskuratu zuen, 25 segundura. Laugarren postuan Fernando Etxegarai beratarra sailkatu zen, hau ere Hiru Herri taldekoa, (24' 40") eta bosgarren, Ramuntxo Lamothe saratarra izan zen (26' 02"). Emakumeen artean, Sara Rodriguez Aldalur nagusitu zen (24' 54") eta beteranoetan, Marino Mateos Lobato eta Arantxa Aldalur.

Guzira 150 bat korrikalarik parte hartu zuten. Jubeniletan, herriko korrikalariak nagusitu ziren. Mutiletan Iñigo Altzugarai eta Ibai Bereau elkarrekin helmugaratu ziren eta nesketan Ioar Oteiza izan zen azkarrena. Junior mailan ere, Jon Olaizola lesakarra izan zen irabazle eta kadetetan, Asier Biurrarena. Kategoria ttikienetan, aurrebenjamin mailan Iker Iturria eta Nahia Mitxelena izan ziren irabazle, benjaminetan, Unai Zamorano eta Maialen Oiartzun eta infantiletan Unai Oiartzun eta Ma-



# AGENDA egunez egun

## MENDI ATERALDIAK

### ELIZONDO

**Ekainaren 5ean** Xorroxinera ateraldia eginen dute Baztango Mendigoizaleek.

### ZUGARRAMURDI

**Ekainaren 12an** Ibantellira ateraldia eginen du Atxuria Mendi Taldeak.

## ERAKUSKETAK

### BERA

**Maiatzaren 28tik ekainaren 5era** Berako Pintura Taldeak Kultur Etxeko Erakusketa Gelan erakusketa berria ikusgai jarriko du urtean zehar egindako lanak erakusteko. Astelehenetik igandera arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara zabalik.

### AZKAIN

**Maiatzaren 30etik ekainaren 5erat** txalapartari buruzko erakusketa Jauregian.

## BESTAK

### BERA

**Ekainaren 3tik 5era** Altzateko bestak. Xehetasunak 7. orrian.

## OSPAKIZUNAK

### ETXALAR

**Ekainaren 5ean** XIII. Gasna Feria eguna antolatu du Altxatak. Xehetasunak 9. orrian.

## DIAPOSITIBAK

### ETXALAR

**Ekainaren 4an** Julen Manterola Irungo gaztearen diapositiba emanaldia Kultur Etxean 20:30etan: «Euskal Herria, herriz herri zeharkaldia».

## TELEBISTAKO TXOKOA





TTIPI-TTAPA TELEBISTAKO ERREPORTAIAN

# Carlos Altzugarai masaje emailearekin solasean

Lehenago ere errana dugu, eta gehientsuenak ados egonen zarete: dentistarengana, okulistara, podologoarengana edo edozein medikurengara ez gara nahi dugulakoz joaten. Nonbaiteko mina dugula eta, hura sendatzera bakarrik hurbiltzen garela leku hauetara. Beti behartuta. Ez dago honekin batere ados Karlos Altzugarai, Lesakan sortu eta Beran bizi eta lan egiten duen fisioterapeuta. Bere ustez, denak joan beharko ginateke, urtean bi aldiz behintzat, masajista batengana. Izan ere, nonbait minik sentitu gabe, posiblea da giharren bat gaizki egotea. Berak egiten dituen test eta probetan beti harrautzen omen du zerbait.

Ez dugu ukatuko. Fisioterapeuta honen lan egiteko modua berexia da. Ez da mugatzen mina dugun lekuan masajeak ematera. Lehenagotik test batzuk egiten ditu, gorputz osoa begiratuz, eta behin hori eginda, lanean hasten da. Ekainaren 10eko erreportaian, luxuzko bezero batekin lanean ikusteko modua izanen dugu: Fernando Etxegarai kirolaria. Bere laguntzarekin Altzugarairen sesio bat nolakoa den ezagutuko dugu. Etxeko sofan giharrak lixatu, lasaitu eta gogortzeko modua, ttipi-ttapa telebistan.

## DISKAK




*«Doktor Do Re Mi eta Benedizebra»*

**OSKORRI-KUKUBILTXO**

*ELKAR, 2005*

Oskorri eta Kukubiltxo, umeentzako aspaldi egin bertze bi ikuskizunen esperientzia izanik («Katuen testamentua» eta «Marijane kanta zan») eta ordutik urte aunitz pasatu direla, berriz ere haurrentzako lan berri bat prestatuta bueltatzen zaizkigu. Oskorrik 23 kantu errejistratu ditu disko eder batean eta oskorrik eta Kukubiltxok kantu hauekin moldatu dute espektakulu berria. «Doktor Do Re Mi eta Benedizebra» ikuskizun fisiko, kimiko eta magikoa dela diote. Fisikoa, anketa fisikoa eskatzen duten hainbat joku izkuturen bitartez; kimikoa, kimika berezia sortzen duten heldu eta umeen arteko jolas interaktiboen bitartez; eta magikoa, haur errepertorioan hain ohikoak izaten diren hizkera kriptiko eta magikozko kantu eta jolas zoragarrietan. Umeentzat eta heldu argientzat egindako diska.

## BASERRIA

Datu Iturria: Nafarroako Gobernua
(Maiatzaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 31,50 € (+2,00)

**Zerri gizena**
1,035 € kiloa (+0,040)

**Zerramak:**
0,440 € Kg/bizirik. (+0,020)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 45 (-0,03)
**1.koa** 3,25 (-0,03)
**2.koa** 3,12 (-0,03)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,55 (-0,03)
**1.koa** 3,37 (-0,03)
**2.koa** 3,19 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 228,00 (=)
idixkoak 252,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,98/3,04
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,70 / 5,90
8-10 kilokoak: 4,30 / 4,80

## JAKIN BEHARREKOAK

# Helduen antzera eginez ikasten dute umeek

### Haurrendako eredurik egokienak gurasoak dira

Helduek egiten duten guztia imitatuz ikasten dute umeek, berdin dio gauza onak edo txarrak izan. Imitazioa izaten da haurrentzat ikasteko modurik errazena, eta arrazoi horrexegatik, eguneroko bizimoduan ditugun hainbat eta hainbat jokamolde umeei erakusteko tresna baliotsua izaten ahal da gurasoentzat (hortzak garbitzeko ohitura, komunera joatekoa...). Imitazioak, ordea, berekin du arriskua. Batere komeni ez zaizkien jokamoduak ere ikasten ahal dutelako umeek.

Gauzak horrela, umeendako eredurik egokienak gurasoak izaten dira, eta kasu eman beharko da umearen aurrean nolako jokamoldeak izaten diren. Izan ere, imitazioaren bitartez gauza berriak ez ezik, bizitzaren aurrean nolako jarrera izan behar den ere ikasiko baitu haurrak:



Arnasusa

**Imitazioaren bitartez bizitzaren aurrean nolako jarrera izan behar den ikasiko du umeak.**

• Kasu eman zuen jokamoldearekin. Umeekin ez du balio erratea, "egin nik erraten dudana eta ez egiten dudana".

• Egizue egunero umearen aurrean berak ikastea komeni diren kontutxoak: hortzak garbitu, janztea...

• Hankasartzerik egiten duzuenean, onartu eta saiatu hura konpontzen akatsa zuen buruan aurpegiratu gabe. Umeak ikasiko du horrela bere hankasartzeak moldatzen, eta hankasartzeengatik arrenkurarik ez egiten.

• Ez erabili zigor fisikorik, umeak ikasiko baitu justifikatuta dagoela norbait jotzea gaizki portatzeagatik. Badaude zigor fisikoa baino modu eraginkorragoak.

• Azaldu umeari zuen erabakien arrazoia. Horrela, bertzerik gabe gurasoei kontra egitea saihestuko duzue.

• Hitzegiten ikasten ari baldin bada, hitzegiozue umeari hitzegin behar den bezala, modu erraz batean. Ez hitzegin berari "zuek asmatutako" hizkuntzan. Berak oker hitzegiten baldin badu, zuzendu umeari oker errandako hitza ongi errepikatuz. Gauzaren bat seinalatzen duenean, erran gauzaren izena erran behar den bezala.

Azkenik, kontuan hartu zenbat eta lehenago ikasten duen hitzegiten orduan eta azkarrago ikasiko duela gauzak arrazoitzen, eta lehenago ohartuko dela zer den imitatu behar duena eta zer ez.

**Rakel AMIGO**
**Bortzirietako Giz. Zerb.**

## LIBURUAK




*Bihotz gosetien kluba*

**Xabier MENDIGUREN ELIZEGI**

*ELKAR, 2005*

Autobiografia eta saiakera kutsuko idazlanen ondoren, fikziora itzuli da Xabier Mendiguren Elizegi *Bihotz Gosetien kluba* liburuarekin. Bost narrazio labur eta luzeagoak bildu ditu maitasunaren nahi eta ezinaren gaiaren inguruan. Umorez zipriztindutako istorioak dira, zenbait egoera tragiko irriemangarri bihurtzen dira. Estilo jostalaria darabil egileak kontakizun hauetan, pertsonaien lepotik barrez batzuetan eta haien kuitekin bat eginez besteetan, igurtziak eta atximurrak tartekatuz, amodioak berak egiten duen antzera. Bruce Springsteen-en kantu ezagun baten leloa ipini du egileak liburuaren atariko: "Everybody's got a hungry heart" (Denok dugu bihotz goseti bat). *«Nire istorio horietako protagonistek ase ezin bat bizi dute, neurri batean gizon-emakume guztiok sentitzen duguna, edo noizbait sentitu izan duguna»* dio Xabier Elizegik.

# AGENDA egunez egun

### ANTZERKIA

#### LESAKA

**Ekainaren 3an** Irain eskolako ikasleen eskutik «Horroroskopolandia» antzeslana, 11:00etan haurrentzat eta 20:00etan denontzat.

**Ekainaren 4an** Tokia Theatre taldeak «Kauterak» antzeslana eskainiko du karriketan, 23.00etatik aitzinera.

#### ZUGARRAMURDI

**Ekainaren 4an** Panta Rhei Producciones taldearen «Txaribari» euskarazko antzezlana ikusgai Akelarrenean, 18:30etan, Udaberriko Biraren barnean.

### KONTZERTUAK

#### BERA

**Ekainaren 10-11n** bertze musiken Nazioarteko 6. jaialdia andolatu du Ertz-ek. Ortziralean 22:00etatik aintzinera Arnol Dreyblatt (AEB/ Alemania), Jason Kahn (AEB/Suitza) eta Tusuri (Orereta) arituko dira eta larunbatean Damo Suzuki + Zu (Japon), Astra (Suitza/Grezia), Eric La Casa & Thomas Charmetant (Frantzia) eta Xabier Iriondo (Italia) aditzeko aukera izanen da Kultur Etxean.

#### ELIZONDO

**Ekainaren 4an** Elizondoko koralaren berrestrenaldi kontzertua izanen da elizan, 20:15etan.

#### ARANTZA

**Ekainaren 4an** Muthiko Alaiak fanfarreak emanaldia eskainiko du 20:30etan herriko plazan, Udaberriko Biraren barnean.

### OSPAKIZUNAK

#### AZKAIN

**Ekainaren 4-5ean** «Pastore Lore» besta antolatu du Herriko Etxeak. Xehetasunak 17. orrian.

Xehetasunak 17. orrian.

ri laguntzaileak behar dira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak** eta ofizioko langileak: Lanpostu finkoak: igeltseroak, elektrizistak, iturginak erakunde publikoen mantenimendurako. Astelehenetik ortziralera, 8etatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak**. Lanpostu finkoak eraikin publikoetan, ikastetxetan, ospitaletan. 900 euroko soldata. Astelehenetik ortziralera 8etatik 15etara. Informazioa doan ☎ 948 199596.

**Laborategia**. Teknikariak, laguntzaileak, zeladoreak, klinika laguntzaileak. Lanpostu libreak: ospitalak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Osasunbidea.** Bete behar du: 126 erizain, 15 fisioterapeuta, 14 langile sozial, 16 laborategiko teknikari, 14 izpi-teknikari, 65 erizain-laguntzaile, 57 zaintzaile, 37 zeladore. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Erresidentzietan lan egin.** Hirugarren adineko zentroetan, ospital publikoetan zeladore postuan, erizain laguntzaileak, fisioterapeutak, pinbeak. Lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

ADOS BAZTAN
ZERBITZU ANITZAK
- IGELTSEROA
- ZURGINA
- FONTANEROA
- ELEKTRIZISTA
- PINTOREA
Behar duzun gremioen koordinazio guztia daukagu.
ELIZONDO - Santiago 47
DONEZTEBE - Santa Lucia Plaza

YUNNAN
948 07 82 59

SAMPI ARAGON
ZOANSA
Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu.
Eskura ordaintzen dugu

TALLERES SANTESTEBAN
☎ 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

MENDAUR MOTOR
DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEA

FAMILIA LANGILEEN ORDEZKAPENAK EGITEKO LAN POLTSA BAT OSATZEKO DEIALDIA

Malerrekako Mankomunitateak familia langileen lan-poltsa bat egin nahi du etxez etxeko zerbitzuan ordezkapenak egiteko.
Baldintzak:
- Eskolatze ziurtagiria.
- Gidatzeko baimena eta kotxea izan.
- Euskalduna.
Kontutan hartuko dira egindako ikastaroak eta lan esperientzia.
Deialdian parte hartzeko eskaera eta kurrikuluma aurkeztu behar dira ekainaren 10eko arratsaldeko 14ak baino lehen Doneztebeko Mankomunitateko bulegoetan.
Doneztebean, 2005eko maiatzaren 23an.
Miguel Angel Petrirena Azpilazu

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Ford Focus** TDCI autoa salgai. Egoera onean, etxeko garantiarekin. ☎ 679892622.

**Hyundai Accent** autoa salgai. 6 urtekoa. Arras merke. ☎ 666 774904.

**Ford Focus 1.8 TDDI** autoa salgai, 90 cv, extrak, 2002koa, 43.000 km. Egoera onean. 10.000 euro. ☎ 676 666676 (19:30etatik aurrera).

**Volkswagen Golf TDI** autoa salgai, 2003koa, 130 cv 6 abiadura eta 40.000 km. Egoera ona. ☎ 677 843414.

**Citroen ZX** Turbodiesela salgai. NA-AP matrikuladuna. ☎ 659 186365.

**Gas-Gas 280 TXT Pro** trialeko motoa salgai. Oso gutxi ibila. Prezio negoziagarria. ☎ 948 450644 edo 646 762383.

**Lada Niva** salgai. Egoera onean. ☎ 606 925288.

**Citroen Xsara** 2.0 HDI autoa salgai, 90 zaldikoa, 3 urte, 40.000 km, garajean egona. ☎ 630 136863.

## ANIMALIAK

### 601 Emateko

**Txakurrak** opari emateko. ☎ 639 316337 (Mara).

**Urte terdiko zakurra** opari emateko, arra, samoyedo eta pointer nahasketa, beltza, hagitz polita eta ona opari emanen nuke, ezin zainduagatik. ☎ 690 048681.

## ANIMALIAK

### 602 Salerosketak

**Katu pertsa** salgai. ☎ 649 069416.

**Gorbea** arrazako artzai xakurkumeak salgai. ☎ 948 450492.

**Poniak** salgai, beren umeekin. ☎ 610 221528.

## DENETARIK

### 702 Salerosketak

**Soropil-mozteko makina** (cortacesped) salgai, Viking MB555, 6 zaldikoa. ☎ 618 123145 edo 948 631422.

**Belarra biltzeko pinketa** (rastrillo hilorador) erosi nahi nuke. ☎ 680 592750.

Tailerra
Nafarroako Enpresa Txiki eta Ertainen sentsibilizazioa Gogoeta Estrategikoaz

LESAKA
Ekainak 7, asteartea, 16.30etatik 19.30etara
CEDERNA - GARALUR
Bidasoako Enpresen Zerbitzu Zentroa
Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2b

Partehartzea doan Izena eman behar da
Tfnoa. 948 421 150 / 421 239 calidad@ain.es

Gobierno de Navarra
ain ASOCIACIÓN DE LA INDUSTRIA NAVARRA

EGITARAUA
16.30 - 17.00 Gogoeta Estrategikoaren garrantzia enpresa txiki eta ertainetan.
Angel Azcarate - AINeko Kalitate-Produktibitate Departamentuko arduraduna.
Irache Busto - Merkatuen Marketing eta Ikerketan kontsultorea.
17.00 - 17.30 Egiazko adibide baten aurkezpena "Gogoeta Estrategikoaren prozesua jarduera nagusitzat ezarri/ezartzeko ... Nafarroako lantegi txiki batean".
José Antonio Delgado - ADISCOko Zuzendari Nagusia.
17.30 - 18.45 Lan taldeko saioa adibideari buruz (15 minutuko atsedenaldiarekin)
18.45 - 19.30 Konklusioen bateratzea.

t r u

NUU - T

IG MEM E

G M TH N

7 /

+ VELTINS

EST

+ L L n u Tr

# Larunbata, ekainak 11

n

## DENBORALDI BUKAERA
## ATEAK IREKIZ OSPATUKO DUGU

E
MUSUT UK

n r l
uk r k
st h n

MILESKE GU EKIN IZ TE G TIK
U I N ELK IKUSIK UGU

TX

n l h n,
h rtz zu tr xk t

BIXEN OSTATUA

r
I INTZI

TITI

r
EL C FE

r
AMEZTIA
s r